

Kutxabank Taldea

Kutxabank Taldearen
eragin ekonomikoari
buruzko azterketa




bbkē



kutxa
FUNDAZIOA

Vital
FUNDACIÓN-FUNDAZIOA

2023ko APIRILA



1. Laburpen exekutiboa	3
2. Sarrera	5
3. Metodologia	7
3.1 Lurralde arteko Input-Output Taula	8
3.2 Planteamendu orokorra	13
3.3 Eraginen zehaztapena	15
4. Emaitzak	26
4.1 Eragin zuzenak	30
4.2 Zeharkako eraginak	31
4.3 Eragin induzituak	39
4.4 Guztirako eraginak	43
Erreferentzia bibliografikoak	54
Eranskinak	55
A. Erreferentziazko datu makroekonomikoak	44
B. 2021an Kutxabankek izandako jarduerari buruzko datuak	59
C. Emaitzen xehetasuna	66
Irudiak	
Kutxabank Taldea eta azterketaren irismena	6
Total Tax Contribution – Kutxabank Taldearen zerga-ekarpena guztira	50

1. Laburpen exekutiboa

Kutxabank Taldeak CEPREDEri enkargatu dio Taldeak Espainiako ekonomian, bai Estatu mailan bai lurralde mailan, jarduera garatzen duen geografia eremu ezberdinetan alegia, duen eraginari buruzko azterlan hau. Hona hemen azterlanaren ondorio nagusiak:

- Kutxabank Taldearen eragin ekonomikoaren zehaztapena egiteko, eragin zuzen, zeharkako eta induzituak kalkulatzeko metodoak erabili dira. Horietan Input-Output Taulak oinarri gisa hartu dira eta eraginak lurraldez lurralde aztertuta eta oro har onarturik dauden planteamendu metodologikoei jarraituta egin da.
- Azken ekitaldi ekonomikoari buruz eskura dauden datuen arabera, Kutxabank Taldearen 2022ko jardueraren saldo bizia, kuantitatiboki, honela laburtzen da: gordailuetan ia 50.073 milioi euro, maileguetan ia 52.779 milioi eurotik gora, eta 709 bulegoetan banatutako 5.680 zuzeneko langile.
- Zerbitzu hau eskaini ahal izateko, Taldeak 453 milioi euro inguru bideratu ditu soldata eta lansariak ordaintzera, 493 milioi euro inguruko balioa duten ondasun eta zerbitzuak erosi ditu, erosketak eta inbertsioak barne, eta inbertsio-fondoan eta pentsio-planen prestazioetatik 1.308 milioi eurotik gorako diru-itzulketa garbiak egin ditu.
- Estatu osoko kreditu- eta gordailu-entitate guztiak kontuan hartuta, Kutxabank Taldea %3,5 inguru da bulego kopurua kontuan hartuta, eta %3,4 langile kopuruak kontuan hartuta, eta %4,2ko batez besteko kuota du Estatu mailako maileguetan eta %3,5 gordailuetan, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE, aurrerantzean) %25,8 eta %35,9ra igotzen delarik, hurrenez hurren, eta %6,2 eta %6,1eraino, berriz, Andaluzian.
- Sistema ekonomiko osoan duen **zuzeneko eragina** neurtzen jarrita, bere BPGren 1.124 milioi euroek eta 5.680 enpleguk **estatu osoko BPGren %0,09 eta enpleguaren %0,03 inguru osatzen dute**, eta ratioa, hurrenez hurren, **%0,9 eta %0,3 ingururaino igotzen da EAE osoan eta Kordobako probintzian**. Zuzeneko jarduera guzti horren ondorioz, administrazio publikoek **zergetan 483 milioi euro** inguru jasoko lukete.
- Zuzeneko eragin hori areagotu egiten da, batetik, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko, soldatak ordaintzeko, akziodunak saritzeko edo zergak ordaintzeko izaten diren kutxako irteerak direla-eta, eta, bestetik, lurralde osoan beste enpresa batzuen sorrera ahalbidetzen duen kreditu-jarduera medio. Azken horiek jardueragatiko zeharkako eraginak eta maileguengatiko zeharkako eraginak delakoak dira, hurrenez hurren. Halaber, inbertsio eta pentsio-fondoetatik ordaindutako diru-itzulketa garbiek estatuko ekoizpena handitzen laguntzen duten fluxuak sortzen dituzte.
- Kutxabank Taldearen jardueraren ondorioz, azken ekitaldian 11.018 enplegu baino gehixeagori eutsi zitzaien Estatu osoan eta 619 milioi euro baino gehiago zuzendu ziren errentetara (BPG) eta, zerga-bilketaren ikuspuntutik, horietatik 274 milioi euro administrazio publikoen kutxetara pasatu ziren. Kopuru horiek Estatu osoko BPGren nahiz enpleguaren % 0,05 inguru osatzen dute, eta EAEko BPGren % 0,37 eta enpleguaren % 0,48, hain zuzen ere.
- Taldeak burututako kreditu-jarduerak, bestalde, beste enpresa batzuen ekoizpena, errentak eta enpleguak finantzatzen lagundu izan du, osotara hartuta, BPGren 32.168 milioitik gora euro direlarik, hots, Estatu osoko % 2,7 baino gehiago, eta 545.701 pertsona baino gehiagori ematen zaie enplegua, hau da, Estatu osoko % 3,0ari. Zerga-bilketara bideratutako zenbatekoa, berriz, ia 14.312 milioi euro izan da. Zeharkako eragin hauek asko handitzen dira oraingo honetan ere EAEn (enpleguaren % 13,9 eta BPGren % 12,6) eta presentzia handieneko andaluziar probintzietan, Kordoban (enpleguaren %12,7 eta BPGren % 11,5) eta Jaenen (enpleguaren eta BPGren % 3,2), kasu.

- Bukatzeko, zeharkako enplegatuek euren kontsumorako erabiltzen dituzten errenta guztiek sortutako eragin induzituek, 39 milioi euro gehiago eragin zituzten BPGan jarduera horrengatik, eta 2.048 milioi euro baino gehiago maileguengatik; hurrenez hurren, beste 606 milioi eta 31.614 lanpostu ahalbidetu zituzten.
- **Osotara hartuta eta eragin guztiak metatuz**, Kutxabank Taldeak **%3,0 inguru eransten dio Estatuko BPG osoari**, hots, biztanle bakoitzeko 760 euro, gutxi gorabehera Estatuan; dena dela, EAEn zifra horiek gora egiten dute nabarmen, prezio arrunteko (aurrerantzean, p.a.) 4.707 euro, edo Kordoban, p.a. 2.362 euro izanik.
- Kutxabank Taldeak burututako jardueraren mendekoak dira 594.600 lanpostu baino gehiago; Estatu osoko batez bestekoan, **100 lanpostutatik 3,2** esan nahi du horrek Modu erlatiboan, enplegu arloan duen eragina 65.900 enplegu baino gehiagora iristen da, milioi biztanleko, EAEn; 31.000 Madrilgo Autonomia Erkidegoan; 17.600 Errioxan; 14.000 Nafarroan; eta 10.470etik gora Andaluzian. Andaluziaren kasuan, dena den, enplegu-intentsitate hau 44.900 enplegutara iristerainokoa da, milioi biztanleko, Kordoban, eta 11.700 enplegurainokoa, berriz, Jaenen.

Globalki neurtuta, ogasun publikoek 15.900 milioi baino euro gutxiago bilduko lituzkete Kutxabanken jarduera honen ondorioz, esan nahi baita, bildutako 100 eurotik 3,3 gutxi gorabehera.

2.Sarrera

Proiektu hau CEPREDEK Kutxabank Taldeak bere jardueraren eragin ekonomikoaren azterketa egiteko egindako eskaerari erantzuteko sortu da.

CEPREDE, Aurreikuspen Ekonomikorako Zentroa, 1981ean sortu zen Madrileko Merkataritza eta Industria Ganberaren eta Universidad-Empresa Fundazioaren babesean. Bost urte geroago, 1986an, bi erakunde horiek elkarre bat sortu zuten, Aurreikuspen Ekonomikorako Zentroa izeneko, beste erakunde hauekin batera: Galiziako o Enpresa-Unibertsitatea Fundazioa (FEUGA), Komunikazioen Funtzio Sozialaren Garapenerako Fundazioa (FUNDESCO) eta Banco Exterior de Españaren Fundazioa. Elkarre horretako partaide dira, gaur egun, garrantzi handiko hainbat enpresa pribatu eta publiko, talde zein administrazioko erakunde.

CEPREDE, orain, ikerketa ekonomikorako zentro iraunkor bat da, guztien artean (ugazabek, fundatzaileek, elkartekideek eta Madrileko Unibertsitate Autonomoko L.R.Klein aurreikuspen ekonomikorako institutuan integratutako unibertsitateko irakasle eta ikertzaile taldea) sortu eta partekatutako errealitate bat. Errealitate hori zenbatekoetan jarrita, honela laburbildu daiteke: hamarkadetako historia, ehunka iragarpen-txosten, mila inguru aldagai makroekonomiakoren eta berrehun koiuntura-adierazleen analisi etengabea, ehun adituk osatutako panelari egindako etengabeko kontsulta, metodologia-txostenen mantentze eta eguneratzea, arloetako ereduak sortzea eta L.R.Klein Institutuaren bitartez HISPALINKen, lurraldeka integratutako proiektu nazionalean, eta LINK (Nazio Batuak) eta HERMES (Europar Batasuna) izeneko nazioarteko proiektuetan parte hartzea.

Aipatutako bi erakundek berrogei urte baino gehiagoko esperientzia luzea dute analisi eta iragarpen ekonomikoak hala nola mota guztietako azterlanak egiten, eta jardueren eragin ekonomikoa ebaluatzeko hamaika proiektu gauzatu izan dituzte, bai nazio mailan bai lurralde mailan.

Esate batera, Espainiako portu-sareko zenbaiten eragin ekonomikoaren analisiak egin dira maila agregatuan, landa-garapenerako programenak edo Europar Batasuneko kohesio-fondoak.

Halaber, eragina aztertzeke aplikazioak egin dira hainbat entitate edo enpresa berezirentzat, adibidez Espainia Eraikinaren zaharberritzea, Chamartingo hirigintza-garapeneraren operazioa, Guggenheim Museoa Urdaibain zabaltzeke asmoa, lhobek (Eusko Jaurilaritzaren menpeko erakundeak) garatutako proiektu eta programak, edo telefonia mugikorreke eta kable bidezko komunikaziorako operatzaile berriak ezartzea.

Metatutako esperientzia horren ondorioz, CEPREDE Aurreikuspen Ekonomikoko Zentroa hautagai egokia da Kutxabank Taldearen eragin ekonomikoaren azterketa hau garatzeko.

Azterlan honen xede nagusia, beraz, da Kutxabank Taldeak espainiar ekonomian duen eragin ekonomikoaren azterketa egitea (zuzena, zeharkakoa eta induzitua), EAEn eta Andaluzian arreta berezia jarriz, bai ekoizpen mailan, bai errenta, enplegu eta zerga-itzulkinen arloan, betiere kontuan hartuta den-dena banku-taldearen, Kutxabanken jabetza duten hiru fundazioen ohiko jardueraren eragin ekonomikoaz baino ez dela. Hau da, ez da kontuan hartu enpresa partaidetuen eragina edo «egoitza» eraginetik eratorritakoa.


Helburu nagusi hori lortzeko, hau da, eragina ezagutzeko, honako lan-sekuentziak garatu dira:

- Kutxabankek garatutako jardueren ondorioz sortutako ondasun eta zerbitzuen fluxu eta transakzio guztiak zehaztu.
- Aipatutako baliabideak sailkatu, egindako gastu-tipologiaren arabera, jarduera-adar guztietan eragindako zuzeneko eraginak zehazteari begira.
- Eredu bat garatu ekoizpen eta errenta, enplegu nahiz zerga-itzulkinengatik sortutako zeharkako eta induzitutako eraginak kuantifikatzeko.

Kutxabank Taldea eta azterketaren irismena

KUTXABANK 2012ko urtarrilaren 1ean sortu zen hiru euskal aurrezki-kutxen bategitearen ondorioz: Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea (egun, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundacion Bancaria – Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa; aurrerantzean, BBK), Caja de Ahorros eta Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastian (egun, Fundacion Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioa; aurrerantzean, Kutxa) eta Caja de Ahorros de Vitoria y Alava (egun Caja de Ahorros de Vitoria y Alava – Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa, Fundacion Bancaria dena; aurrerantzean, Caja Vital). 150 urte baino gehiagoko historia du finantza-sektorean.

Taldeko akziodunen egitura:



Iturria: Kutxabanken barruko informazioa

Hona hemen Kutxabank Taldearen ezaugarri nagusiak:

- Tamaina ertaineko entitate bat da, 65.000 MM€ baino gehiagoko aktibo, 5.680 langile eta 709 bulego dituen 2022ko urte amaieran
- Bezero txikizkarietara eta enpresa txiki eta ertainetara zuzendua, tokiko frankizia handiekin
- Jatorrizko merkatuetan sustraitze sakona eta gizarte-konpromisoa
- Arrisku-profil konparatiboki baxua eta kaudimen- eta likidezia-ratio sendoak
- Akziodun instituzionalak (hiru banku-fundazio sortzaileek) kudeaketan parte hartu gabe luzez erakutsirik historialarekin
- Krisiari aurre egin izan diona inolako laguntza publikorik gabe eta kanpoko kapital-iturrietara edo baliabide propio gisa konputa zitezkeen beste tresna batzuetara jo gabe
- Merkatu-kuota handiarekin jatorrizko lurraldeetan:
 - o >%40 etxebizitza-hipoteka berrietan
 - o >%40 helbideratutako nominetan
 - o >%50 helbideratutako pentsioetan
 - o ≈%50 pentsio-planetan eta BGAETan

Kutxabank Taldeak banka alorrean garatzen du bere jardura nagusia, Kutxabank SAU eta CajaSur Banco SAUren bitartez. Baina nabarmentzekoak dira, baita, aseguru alorrekoak (Kutxabank Aseguradora eta Kutxabank Vida y Pensiones-en bidez), ondare-kudeaketako jarduerak (Kutxabank Gestion SGIC eta Fineco Taldearen bidez) bai eta partaidetza industrialak kudeatzeko jarduerak, beste batzuen artean. Txosten honen ondorioetarako, banku-jardura baino ez da kontuan hartu.

3. Metodologia

Sistema ekonomiko oso batean jarduera zehatz batek (kasu honetan, Kutxabank Taldearen jarduerak) sortzen duen eragin ekonomikoaren kalkuluei buruzko azterlanak ugari baino ugariagoak dira ekonomia aplikatuaren historian, eta asko dira kontu horiei heltzeko proposatu izan diren ikuspegi alternatiboak.

Dena dela, aplikatutako lan guztiak, ñabardurak-ñabardura eta hedapen mailak gorabehera, hiru multzo handitan edo hiru metodologia-proposamenetan sailka daitezke:

- Gastua biderkatzen duten ereduak.
- Input-output motako ereduak.
- Oreka orokorreko ereduak.

Aurreneko aukerak, lehenengo, aztertu beharreko jarduerak sortutako gastuaren hasierako fluxuen, edo azken eskariaren, zenbatespena egiten du, eta, eredu (gutxi gorabehera) konplexuren bat erabilia, gehitutako gastu-biderkatzaileak zehaztetik sortutako errenta osoa eta enplegu mailak ezartzen ditu gero.

Bigarren aukera, era berean, aztertu beharreko jarduerak sortutako zuzeneko eraginaren fluxuak -kasu honetan eskaintzaren ikuspegitik, ekoizpenarenetik- zehaztetik abiatzen da, eta, ondasun eta zerbitzuen eskuratze-fluxuetan bildutako eta input-output tauletan jasotako sektore-harremanetan oinarriturik, hasierako eskari hori betetzeko behar diren azken ekoizpen mailak ezartzen ditu.

Oreka orokorreko ereduak, berriz, aurreko bien luzapena dira. Horietan ez dira biltzen soilik sektoreen arteko harremanak eta ondasun eta zerbitzuen fluxuak, baizik eta errenta-fluxuak ere kontuan hartzen dira, Kontabilitate Sozialaren Matrizeetan daudenak eta Oreka Orokor Konputagarri izeneko Ereduen bitartez adierazten direnak.

Kontua da arrazoizko oreka bat egon behar duela azterlan horiei xehetasun bereiziz heltzeko maila mikroekonomikoaren eta, maila makroekonomikoan behar bezain adierazgarriak lirartekeen ondorioak ezartzeko aukeren artean, eta hor dago koska.

Adibidez, gastu-biderkatzaileen aplikazioak errenta-agregatuaren zenbatekoak baino ez ditu biltzen, amaierako biderkatzaileak ezin dira bereizi hasieran sortutako fluxu-tipologiaren arabera. Era horretan, amaierako eragina egindako gastuaren zenbatekoaren mende bakarrik legoke, eta beraz, ezin litezke bereizi Kutxabanken jardueraren eraginez sortutako fluxu ekonomikoaren eraginak.

Bestalde, oreka orokorreko ereduak askoz xehetasun mikroekonomiko altuagoak eskaini ditzakete, baina metodologia aldetik askoz konplexuagoak dira, ekoizleen eta kontsumitzaileen tipologietan xehaturiko eskaintzen nahiz eskarien funtzioen arabera zenbatetsi behar dituelako. Horrez gainera, kontabilitate sozialaren matrize baten beharra dute aurretik, eta hori ez da gehienetan eskura egoten, burutzeko sortzen duen kostuak azterlan mota hauen helburuak aise gainditzen dituelako.

Hori dela-eta, analisi "mezto-ekonomiko" delakoan aurkitzen da informazio mikroekonomikoaren eta informazio makroekonomikoaren arteko integrazio-maila egokia, eta, hor, input-output tauletan oinarritutako metodologia da nazioartean tresna zabalduenetakoa.

Hau orain, tresnok erabili izan dituzten azterlan teoriko eta aplikatuak aztertzen jarritz gero, agerian uzten dute eskaintzen dituzten abantailez gain badituztela muga batzuk ere, eta muga horiek kontuan hartu beharko dira tresna horien potentzialtasunaren balorazio egokia egiteko orduan.

Lehenik eta behin, azterlan gehienek agerian uzten dute input-output taulen gisako tresnekin lan egiteak dakarten denborazko muga, oro har, nahiko esanguratsua baita denbora-faktorean erakusten duten desfasea (input-output taula erreferentziazko alditik bost bat urtera izatea da ohikoena). Hortaz, bada, taula horiek eguneratu egin behar izaten dira gehien-gehienetan, jarduera zehatzaren ikerketa edo zuzeneko balorazioa egiten den aldiari homologatuak izan daitezten.

Ildo beretik, burutu izan diren azterlanek agerian uzten dute aztertutako jardueren eragindako eragin induzituak denboran kokatzeko sortzen duten arazoa, eta erreferentziazko eremu geografikoari (lurraldeak, gehienetan) lotutako input-output taula bereziak sortzera behartzen gaituzte.

Lurraldekako taula hauen ezaugarria da barneko sektorea, hots, erreferentziazko lurraldearena, bereizi egiten duela Estatuko eta munduko gainerako sektoreetatik. Era horretan, lurraldean bertan koka daiteke eragin zuzenen, zeharkakoen eta induzituen multzoa, edo, behintzat, gainerako lurralde nazionalean. Azken horren kasuan, agregatu oso gisa hartu behar da, gainerako lurraldeetako eragin espezifikoa, oro har, ezin baitira bereizi.

Ondorio horren osagarri gisa, mota honetako aplikazioek hasiera-hasieratik aintzatesten dute sistema ekonomikoan eragiten diren eragin guztiak egoera orekatu batean ekoizten eta eskatzen diren zenbatekoetan neurtzen direla, baliabideak bete-betean erabilia, eta beraz, ez dute onartzen prezioen gainean sor litekeen eraginik, ez eta erabili gabeko baliabiderik izaterik.

Kritika horiek gorabehera, eta onartutako mugen eta hipotesien jakitun izanik, input-output metodologia da, oro har, jardueren eraginen eta bereziki finantza-erakundeen jardueren analisisetan erabilien den hurbilpena, alde handiz gainera; halaxe egiaztatzen dute horri buruko hainbat eta hainbat azterlanek¹.

Hori ikusita, uste dugu metodologia hau aplikatzea dela aukerarik egokiena, eta, horretarako, L.R.Klein Institutuak garatu zuen lurraldearteko input-output taula erabiliko dugu, hain zuzen 2015. urtean eguneratutakoa.

3.1 Lurralde arteko Input-Output Taula

Lurralde arteko taula hauen jatorria aztertzen jarriz gero, laurogeita hamarrek hamarkadaren hondarreraino joan beharra dago, orduan ekin baitzion L.R.Klein Institutuak Espainiako ekonomiaren input-output taulak sortzeko proiektuari. Proiektuak Ekonomia eta Ogasun Ministerioiko Aurrekontu Analisi eta Programaziorako Zuzendaritzaren babesarekin eta EGEF Lurralde Garapeneko Europar Funtsen diruarekin finantzatu zen, 1994-1999 Laguntza Teknikorako Programa Operatiboaren (1. helburua) harira.

Ikerketa-proiektu horren lehen emaitzak 1995. urterako aurreikusitako espainiar ekonomiaren lehen lurraldearteko input-output taulan gauzatu ziren: Taula horren ezaugarri nagusiak eta estimazio-prozesua hemen kontsulta daitezke: Dones, Lopez, eta Pérez, 2000; edo Llano 2004, a eta b.

Taula hori, gero, 2001. urtera arte eguneratu zen, L.R.Klein Institutuak TYPSAren laguntza eta Puertos del Estado erakundearen finantzaketa jasota portuen eragin ekonomikoa ebaluatzeko gidarako egin zuen proiektu berri baten harira, eta baita 2004. urtera arte ere, Castellon eta Ferroleko portuen eragin ekonomikoa aztertzerakoan.

Sustapen Ministerioak ikerketarako diru-laguntza bat eman zuen 2010. urtean lankidetzat publiko-pribaturako programa nazionalaren baitan, zehazki garraio eta azpiegiturei buruzko azpiprograman. Diru-laguntza, ikerketarako erakunde publiko batzuek (L.R.Klein Institutua, Madrileko Unibertsitate Autonomoko Analisi Ekonomikorako Saila, Transyt, Madrileko Unibertsitate Complutenseko Hiri-geografia Saila, Centit, IRNASA) eta enpresa pribatu batzuek (Proyectos Reunidos, ENARCAR Taldea eta CYLSTAT) osatutako partzuergo bati eman zitzaion DESTINO Proiektua garatzeko, hau da, lurraldearteko input-output taulak erabilia garraio-sistemaren eragin ekonomikoaren ebaluazio-metodologiak garatzeko.

Hiru urtez ikertzen aritu ondoren, lurraldearteko IOT taula bat lortu zen, da garraio-adarren bereizketa zeramana, 2007. urteko dataz.

Gerora, eguneratze berria egin zen 2010. urterako eta hori baliatu da oinarri gisa azterlan hau egiteko.

Aipatu den lurraldearteko taulak lerro eta zutabeen arteko simetria-kontzeptu klasikoari eusten dio; halako formatuak, izan ere, erraztu egiten du input-output metodologiaren ohiko aplikazioen garapena.

Era horretan, taula osorik hartuta, ohiko hiru azpimatrizen eratuta dago: bitarteko kontsumoak, lehen mailako

¹ Ikusi, adibidez, "Impacto Social de BBVA en España en 2014" edo "Informe sobre el impacto socioeconómico de Grupo Cooperativo Cajamar en España".

inputak, eta azken eskaria. Hiruren oinarritzko ezaugarriak azaltzen ditugu ondoren:

Bitarteko Kontsumoen Matrizea

S x R zutabeko eta S x (R+1) lerroko matrizea, S izanik guztira aintzat hartutako sektoreak (21) eta R, berriz, guztira hartutako lurraldeak. Lehenengoan 35 ziren eta bigarrengean 19, 17 autonomia-erkidegori penintsulaz kanpoko hiri autonomoengatik, Ceuta eta Melillagatik, beste bat gehitzen denez INEren lurralde-kontabilitateko ohiko egiturari jarraituta, eta baita beste lerro bat ere sektorizatu gabeko jarduera (extra-regio) publikoengatik.

Lerro bat gehiago sartuz gero, lurralde eta sektore bakoitzak inportatutako inputak gehituko lirateke.

Modu horretan, 19 zutabetan banatuta geratuko litzateke IOT nazional baten bitarteko kontsumoen matrizeko gelaxka bakoitza, zutabe bana lurraldeko, eta 20 lerro, 19 lurralde horiei bakoitzak inportatutako bitarteko kontsumoari legokiokeen lerroa gehituta.

Lurraldeak adierazten dituzten zutabetan jarri eta horko gelaxka bakoitzaren barruan, berriz, diagonal nagusia lurraldeko IOT bakoitzaren barneko bitarteko kontsumoek osatuko lukete; inportatutakoa adierazten duen lerroa, aldiz, lurraldeko tauletan gainerako mundutik inportatutako kontsumoa litzateke, eta gainerako lurraldeen gehiketa, berriz, gainerako lurralde nazionaletik inportatutako kontsumoen baliokidea.

1. taula. Bitarteko Kontsumoen Matrizea

Sektoreak	1	1	1	1	2	2	2	2	3	3	3	3	4	4	4	4	5	5	5	5
Lurraldeak	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4
1.1	a _{11,11}	a _{12,11}	a _{13,11}	a _{14,11}	a _{21,11}	a _{22,11}	a _{23,11}	a _{24,11}	a _{31,11}	a _{32,11}	a _{33,11}	a _{34,11}	a _{41,11}	a _{42,11}	a _{43,11}	a _{44,11}	a _{51,11}	a _{52,11}	a _{53,11}	a _{54,11}
1.2	a _{11,12}	a _{12,12}	a _{13,12}	a _{14,12}	a _{21,12}	a _{22,12}	a _{23,12}	a _{24,12}	a _{31,12}	a _{32,12}	a _{33,12}	a _{34,12}	a _{41,12}	a _{42,12}	a _{43,12}	a _{44,12}	a _{51,12}	a _{52,12}	a _{53,12}	a _{54,12}
1.3	a _{11,13}	a _{12,13}	a _{13,13}	a _{14,13}	a _{21,13}	a _{22,13}	a _{23,13}	a _{24,13}	a _{31,13}	a _{32,13}	a _{33,13}	a _{34,13}	a _{41,13}	a _{42,13}	a _{43,13}	a _{44,13}	a _{51,13}	a _{52,13}	a _{53,13}	a _{54,13}
1.4	a _{11,14}	a _{12,14}	a _{13,14}	a _{14,14}	a _{21,14}	a _{22,14}	a _{23,14}	a _{24,14}	a _{31,14}	a _{32,14}	a _{33,14}	a _{34,14}	a _{41,14}	a _{42,14}	a _{43,14}	a _{44,14}	a _{51,14}	a _{52,14}	a _{53,14}	a _{54,14}
1.m	a _{11,1m}	a _{12,1m}	a _{13,1m}	a _{14,1m}	a _{21,1m}	a _{22,1m}	a _{23,1m}	a _{24,1m}	a _{31,1m}	a _{32,1m}	a _{33,1m}	a _{34,1m}	a _{41,1m}	a _{42,1m}	a _{43,1m}	a _{44,1m}	a _{51,1m}	a _{52,1m}	a _{53,1m}	a _{54,1m}
2.1	a _{11,21}	a _{12,21}	a _{13,21}	a _{14,21}	a _{21,21}	a _{22,21}	a _{23,21}	a _{24,21}	a _{31,21}	a _{32,21}	a _{33,21}	a _{34,21}	a _{41,21}	a _{42,21}	a _{43,21}	a _{44,21}	a _{51,21}	a _{52,21}	a _{53,21}	a _{54,21}
2.2	a _{11,22}	a _{12,22}	a _{13,22}	a _{14,22}	a _{21,22}	a _{22,22}	a _{23,22}	a _{24,22}	a _{31,22}	a _{32,22}	a _{33,22}	a _{34,22}	a _{41,22}	a _{42,22}	a _{43,22}	a _{44,22}	a _{51,22}	a _{52,22}	a _{53,22}	a _{54,22}
2.3	a _{11,23}	a _{12,23}	a _{13,23}	a _{14,23}	a _{21,23}	a _{22,23}	a _{23,23}	a _{24,23}	a _{31,23}	a _{32,23}	a _{33,23}	a _{34,23}	a _{41,23}	a _{42,23}	a _{43,23}	a _{44,23}	a _{51,23}	a _{52,23}	a _{53,23}	a _{54,23}
2.4	a _{11,24}	a _{12,24}	a _{13,24}	a _{14,24}	a _{21,24}	a _{22,24}	a _{23,24}	a _{24,24}	a _{31,24}	a _{32,24}	a _{33,24}	a _{34,24}	a _{41,24}	a _{42,24}	a _{43,24}	a _{44,24}	a _{51,24}	a _{52,24}	a _{53,24}	a _{54,24}
2.m	a _{11,2m}	a _{12,2m}	a _{13,2m}	a _{14,2m}	a _{21,2m}	a _{22,2m}	a _{23,2m}	a _{24,2m}	a _{31,2m}	a _{32,2m}	a _{33,2m}	a _{34,2m}	a _{41,2m}	a _{42,2m}	a _{43,2m}	a _{44,2m}	a _{51,2m}	a _{52,2m}	a _{53,2m}	a _{54,2m}
3.1	a _{11,31}	a _{12,31}	a _{13,31}	a _{14,31}	a _{21,31}	a _{22,31}	a _{23,31}	a _{24,31}	a _{31,31}	a _{32,31}	a _{33,31}	a _{34,31}	a _{41,31}	a _{42,31}	a _{43,31}	a _{44,31}	a _{51,31}	a _{52,31}	a _{53,31}	a _{54,31}
3.2	a _{11,32}	a _{12,32}	a _{13,32}	a _{14,32}	a _{21,32}	a _{22,32}	a _{23,32}	a _{24,32}	a _{31,32}	a _{32,32}	a _{33,32}	a _{34,32}	a _{41,32}	a _{42,32}	a _{43,32}	a _{44,32}	a _{51,32}	a _{52,32}	a _{53,32}	a _{54,32}
3.3	a _{11,33}	a _{12,33}	a _{13,33}	a _{14,33}	a _{21,33}	a _{22,33}	a _{23,33}	a _{24,33}	a _{31,33}	a _{32,33}	a _{33,33}	a _{34,33}	a _{41,33}	a _{42,33}	a _{43,33}	a _{44,33}	a _{51,33}	a _{52,33}	a _{53,33}	a _{54,33}
3.4	a _{11,34}	a _{12,34}	a _{13,34}	a _{14,34}	a _{21,34}	a _{22,34}	a _{23,34}	a _{24,34}	a _{31,34}	a _{32,34}	a _{33,34}	a _{34,34}	a _{41,34}	a _{42,34}	a _{43,34}	a _{44,34}	a _{51,34}	a _{52,34}	a _{53,34}	a _{54,34}
3.m	a _{11,3m}	a _{12,3m}	a _{13,3m}	a _{14,3m}	a _{21,3m}	a _{22,3m}	a _{23,3m}	a _{24,3m}	a _{31,3m}	a _{32,3m}	a _{33,3m}	a _{34,3m}	a _{41,3m}	a _{42,3m}	a _{43,3m}	a _{44,3m}	a _{51,3m}	a _{52,3m}	a _{53,3m}	a _{54,3m}
4.1	a _{11,41}	a _{12,41}	a _{13,41}	a _{14,41}	a _{21,41}	a _{22,41}	a _{23,41}	a _{24,41}	a _{31,41}	a _{32,41}	a _{33,41}	a _{34,41}	a _{41,41}	a _{42,41}	a _{43,41}	a _{44,41}	a _{51,41}	a _{52,41}	a _{53,41}	a _{54,41}
4.2	a _{11,42}	a _{12,42}	a _{13,42}	a _{14,42}	a _{21,42}	a _{22,42}	a _{23,42}	a _{24,42}	a _{31,42}	a _{32,42}	a _{33,42}	a _{34,42}	a _{41,42}	a _{42,42}	a _{43,42}	a _{44,42}	a _{51,42}	a _{52,42}	a _{53,42}	a _{54,42}
4.3	a _{11,43}	a _{12,43}	a _{13,43}	a _{14,43}	a _{21,43}	a _{22,43}	a _{23,43}	a _{24,43}	a _{31,43}	a _{32,43}	a _{33,43}	a _{34,43}	a _{41,43}	a _{42,43}	a _{43,43}	a _{44,43}	a _{51,43}	a _{52,43}	a _{53,43}	a _{54,43}
4.4	a _{11,44}	a _{12,44}	a _{13,44}	a _{14,44}	a _{21,44}	a _{22,44}	a _{23,44}	a _{24,44}	a _{31,44}	a _{32,44}	a _{33,44}	a _{34,44}	a _{41,44}	a _{42,44}	a _{43,44}	a _{44,44}	a _{51,44}	a _{52,44}	a _{53,44}	a _{54,44}
4.m	a _{11,4m}	a _{12,4m}	a _{13,4m}	a _{14,4m}	a _{21,4m}	a _{22,4m}	a _{23,4m}	a _{24,4m}	a _{31,4m}	a _{32,4m}	a _{33,4m}	a _{34,4m}	a _{41,4m}	a _{42,4m}	a _{43,4m}	a _{44,4m}	a _{51,4m}	a _{52,4m}	a _{53,4m}	a _{54,4m}
5.1	a _{11,51}	a _{12,51}	a _{13,51}	a _{14,51}	a _{21,51}	a _{22,51}	a _{23,51}	a _{24,51}	a _{31,51}	a _{32,51}	a _{33,51}	a _{34,51}	a _{41,51}	a _{42,51}	a _{43,51}	a _{44,51}	a _{51,51}	a _{52,51}	a _{53,51}	a _{54,51}
5.2	a _{11,52}	a _{12,52}	a _{13,52}	a _{14,52}	a _{21,52}	a _{22,52}	a _{23,52}	a _{24,52}	a _{31,52}	a _{32,52}	a _{33,52}	a _{34,52}	a _{41,52}	a _{42,52}	a _{43,52}	a _{44,52}	a _{51,52}	a _{52,52}	a _{53,52}	a _{54,52}
5.3	a _{11,53}	a _{12,53}	a _{13,53}	a _{14,53}	a _{21,53}	a _{22,53}	a _{23,53}	a _{24,53}	a _{31,53}	a _{32,53}	a _{33,53}	a _{34,53}	a _{41,53}	a _{42,53}	a _{43,53}	a _{44,53}	a _{51,53}	a _{52,53}	a _{53,53}	a _{54,53}
5.4	a _{11,54}	a _{12,54}	a _{13,54}	a _{14,54}	a _{21,54}	a _{22,54}	a _{23,54}	a _{24,54}	a _{31,54}	a _{32,54}	a _{33,54}	a _{34,54}	a _{41,54}	a _{42,54}	a _{43,54}	a _{44,54}	a _{51,54}	a _{52,54}	a _{53,54}	a _{54,54}
5.m	a _{11,5m}	a _{12,5m}	a _{13,5m}	a _{14,5m}	a _{21,5m}	a _{22,5m}	a _{23,5m}	a _{24,5m}	a _{31,5m}	a _{32,5m}	a _{33,5m}	a _{34,5m}	a _{41,5m}	a _{42,5m}	a _{43,5m}	a _{44,5m}	a _{51,5m}	a _{52,5m}	a _{53,5m}	a _{54,5m}

Iturria: Geuk egina.

Adibiderako 4 lurralde eta 5 sektore hartuta, proposatutako bitarteko kontsumoen matrizea 1. laukian adierazten den moduan geratuko litzateke egituratuta, eta berezko elementua mota honetakoa izango luke:

$$a_{sr, sr}$$

Non **s** eta **r**, hurrenez hurren, kontuan hartutako sektore eta lurraldeak diren

Lehen mailako inputen matrizea

S x R (21 x 19) zutabeko matrizea, lehen mailako inputen matrizean bereizi nahi diren elementuak bezainbat lerroekin (hasiera batean, soilik elementu nagusiak, ekoizpena, balio erantsia eta inportazio baliokideak desagregatu ziren).

Hala, IOT (Input-Output Taula) nazionaletik abiatuz zutabe bakoitza 19 lurraldetan banatzen da, eta taula nazionalekin duen alde bakarra hauxe da: inportazioen lerroa desagregatu egiten da gainerako munduko inportazio lerroaren (inportazio nazionalen baliokidea litzateke) eta gainerako lurralde nazionalen inportazio lerroaren (lurraldearteko merkataritza-fluxu guztiak bilduko litzateke) artean.

Hala zehaztutako matrizea 2. laukian adierazten den moduan egiturako litzateke, betiere gutxieneko zehaztapenak emanda eta oraingoan ere 5 sektore eta 4 lurraldetan sinplifikatuta:

2. taula. Bitarteko Kontsumoen Matrizea

Sektoreak	1	1	1	1	2	2	2	2	3	3	3	3	4	4	4	4	5	5	5	5
Lurraldeak	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4
Bit. Knts. G.	TCl ₁₁	TCl ₁₂	TCl ₁₃	TCl ₁₄	TCl ₂₁	TCl ₂₂	TCl ₂₃	TCl ₂₄	TCl ₃₁	TCl ₃₂	TCl ₃₃	TCl ₃₄	TCl ₄₁	TCl ₄₂	TCl ₄₃	TCl ₄₄	TCl ₅₁	TCl ₅₂	TCl ₅₃	TCl ₅₄
BEZ	IVA ₁₁	IVA ₁₂	IVA ₁₃	IVA ₁₄	IVA ₂₁	IVA ₂₂	IVA ₂₃	IVA ₂₄	IVA ₃₁	IVA ₃₂	IVA ₃₃	IVA ₃₄	IVA ₄₁	IVA ₄₂	IVA ₄₃	IVA ₄₄	IVA ₅₁	IVA ₅₂	IVA ₅₃	IVA ₅₄
Zerga Garbiak	IN ₁₁	IN ₁₂	IN ₁₃	IN ₁₄	IN ₂₁	IN ₂₂	IN ₂₃	IN ₂₄	IN ₃₁	IN ₃₂	IN ₃₃	IN ₃₄	IN ₄₁	IN ₄₂	IN ₄₃	IN ₄₄	IN ₅₁	IN ₅₂	IN ₅₃	IN ₅₄
Soldatak	SS ₁₁	SS ₁₂	SS ₁₃	SS ₁₄	SS ₂₁	SS ₂₂	SS ₂₃	SS ₂₄	SS ₃₁	SS ₃₂	SS ₃₃	SS ₃₄	SS ₄₁	SS ₄₂	SS ₄₃	SS ₄₄	SS ₅₁	SS ₅₂	SS ₅₃	SS ₅₄
USG (ebe)	EBE ₁₁	EBE ₁₂	EBE ₁₃	EBE ₁₄	EBE ₂₁	EBE ₂₂	EBE ₂₃	EBE ₂₄	EBE ₃₁	EBE ₃₂	EBE ₃₃	EBE ₃₄	EBE ₄₁	EBE ₄₂	EBE ₄₃	EBE ₄₄	EBE ₅₁	EBE ₅₂	EBE ₅₃	EBE ₅₄
BEG (vag)	VA ₁₁	VA ₁₂	VA ₁₃	VA ₁₄	VA ₂₁	VA ₂₂	VA ₂₃	VA ₂₄	VA ₃₁	VA ₃₂	VA ₃₃	VA ₃₄	VA ₄₁	VA ₄₂	VA ₄₃	VA ₄₄	VA ₅₁	VA ₅₂	VA ₅₃	VA ₅₄
Beneta. Eko.	PE ₁₁	PE ₁₂	PE ₁₃	PE ₁₄	PE ₂₁	PE ₂₂	PE ₂₃	PE ₂₄	PE ₃₁	PE ₃₂	PE ₃₃	PE ₃₄	PE ₄₁	PE ₄₂	PE ₄₃	PE ₄₄	PE ₅₁	PE ₅₂	PE ₅₃	PE ₅₄
Inp. Guztira	MT ₁₁	MT ₁₂	MT ₁₃	MT ₁₄	MT ₂₁	MT ₂₂	MT ₂₃	MT ₂₄	MT ₃₁	MT ₃₂	MT ₃₃	MT ₃₄	MT ₄₁	MT ₄₂	MT ₄₃	MT ₄₄	MT ₅₁	MT ₅₂	MT ₅₃	MT ₅₄
Kanpo Inp.	ME ₁₁	ME ₁₂	ME ₁₃	ME ₁₄	ME ₂₁	ME ₂₂	ME ₂₃	ME ₂₄	ME ₃₁	ME ₃₂	ME ₃₃	ME ₃₄	ME ₄₁	ME ₄₂	ME ₄₃	ME ₄₄	ME ₅₁	ME ₅₂	ME ₅₃	ME ₅₄
Estatuko Inp.	MN ₁₁	MN ₁₂	MN ₁₃	MN ₁₄	MN ₂₁	MN ₂₂	MN ₂₃	MN ₂₄	MN ₃₁	MN ₃₂	MN ₃₃	MN ₃₄	MN ₄₁	MN ₄₂	MN ₄₃	MN ₄₄	MN ₅₁	MN ₅₂	MN ₅₃	MN ₅₄
Lanpostuak G.	TE ₁₁	TE ₁₂	TE ₁₃	TE ₁₄	TE ₂₁	TE ₂₂	TE ₂₃	TE ₂₄	TE ₃₁	TE ₃₂	TE ₃₃	TE ₃₄	TE ₄₁	TE ₄₂	TE ₄₃	TE ₄₄	TE ₅₁	TE ₅₂	TE ₅₃	TE ₅₄

Iturria: Geuk egina.

Azken Eskariko Matrizea

Azken eskariko matrizeak neurri hauek ditu: $S \times S \times (R+1)$ lerro (212×20) eta $D \times R$ zutabe, D izanik azken eskariko banakatutako osagaien kopurua. Hauek osatzen dute: Etxeetako eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen gastuek, Administrazio Publikoen azken gastuek, Kapital finkoaren eraketa gordinek, Izakinen aldaerek eta Gainerako mundura egindako esportazioek.

Horko lerroak bitarteko kontsumoaren matrizearen berberak dira; zutabeak, bere aldetik, IOT nazionaleko zutabe bakoitza lurraldeka banatzearen ondorio dira.

Proposamen horren ildotik, IOT nazionaleko gelaxka bakoitza beste gelaxka hedatu batean banatuta geratuko litzateke, zutabe bakoitzean lurralde banaren azken eskariko balioa jasotzen delarik. Balio hori lurralde bakoitzaren balioa adierazten duen lerroetatik edo gainerako munduko inportazioei dagokien lerro osagarrietatik hartzen da.

3. taula. Azken Eskariko Matrizea

Osagaiak Lurraldeak	Gastu Pribatua				Herri Administrazioen Gastua				Inbertsio Osoa				Esp.	Lanpostuak guztira
	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4		
1.1	C1,11	C2,11	C3,11	C4,11	G1,11	G2,11	G3,11	G4,11	I1,11	I2,11	I3,11	I4,11	X,11	TE ₁₁
1.2	C1,12	C2,12	C3,12	C4,12	G1,12	G2,12	G3,12	G4,12	I1,12	I2,12	I3,12	I4,12	X,12	TE ₁₂
1.3	C1,13	C2,13	C3,13	C4,13	G1,13	G2,13	G3,13	G4,13	I1,13	I2,13	I3,13	I4,13	X,13	TE ₁₃
1.4	C1,14	C2,14	C3,14	C4,14	G1,14	G2,14	G3,14	G4,14	I1,14	I2,14	I3,14	I4,14	X,14	TE ₁₄
1.m	C1,1m	C2,1m	C3,1m	C4,1m	G1,1m	G2,1m	G3,1m	G4,1m	I1,1m	I2,1m	I3,1m	I4,1m	X,1m	TE _{1m}
2.1	C1,21	C2,21	C3,21	C4,21	G1,21	G2,21	G3,21	G4,21	I1,21	I2,21	I3,21	I4,21	X,21	TE _{21,21}
2.2	C1,22	C2,22	C3,22	C4,22	G1,22	G2,22	G3,22	G4,22	I1,22	I2,22	I3,22	I4,22	X,22	TE ₂₂
2.3	C1,23	C2,23	C3,23	C4,23	G1,23	G2,23	G3,23	G4,23	I1,23	I2,23	I3,23	I4,23	X,23	TE ₂₃
2.4	C1,24	C2,24	C3,24	C4,24	G1,24	G2,24	G3,24	G4,24	I1,24	I2,24	I3,24	I4,24	X,24	TE ₂₄
2.m	C1,2m	C2,2m	C3,2m	C4,2m	G1,2m	G2,2m	G3,2m	G4,2m	I1,2m	I2,2m	I3,2m	I4,2m	X,2m	TE _{2m}
3.1	C1,31	C2,31	C3,31	C4,31	G1,31	G2,31	G3,31	G4,31	I1,31	I2,31	I3,31	I4,31	X,31	TE ₃₁
3.2	C1,32	C2,32	C3,32	C4,32	G1,32	G2,32	G3,32	G4,32	I1,32	I2,32	I3,32	I4,32	X,32	TE ₃₂
3.3	C1,33	C2,33	C3,33	C4,33	G1,33	G2,33	G3,33	G4,33	I1,33	I2,33	I3,33	I4,33	X,33	TE ₃₃
3.4	C1,34	C2,34	C3,34	C4,34	G1,34	G2,34	G3,34	G4,34	I1,34	I2,34	I3,34	I4,34	X,34	TE ₃₄
3.m	C1,3m	C2,3m	C3,3m	C4,3m	G1,3m	G2,3m	G3,3m	G4,3m	I1,3m	I2,3m	I3,3m	I4,3m	X,3m	TE _{3m}
4.1	C1,41	C2,41	C3,41	C4,41	G1,41	G2,41	G3,41	G4,41	I1,41	I2,41	I3,41	I4,41	X,41	TE ₄₁
4.2	C1,42	C2,42	C3,42	C4,42	G1,42	G2,42	G3,42	G4,42	I1,42	I2,42	I3,42	I4,42	X,42	TE ₄₂
4.3	C1,43	C2,43	C3,43	C4,43	G1,43	G2,43	G3,43	G4,43	I1,43	I2,43	I3,43	I4,43	X,43	TE ₄₃
4.4	C1,44	C2,44	C3,44	C4,44	G1,44	G2,44	G3,44	G4,44	I1,44	I2,44	I3,44	I4,44	X,44	TE ₄₄
4.m	C1,4m	C2,4m	C3,4m	C4,4m	G1,4m	G2,4m	G3,4m	G4,4m	I1,4m	I2,4m	I3,4m	I4,4m	X,4m	TE _{4m}
5.1	C1,51	C2,51	C3,51	C4,51	G1,51	G2,51	G3,51	G4,51	I1,51	I2,51	I3,51	I4,51	X,51	TE ₅₁
5.2	C1,52	C2,52	C3,52	C4,52	G1,52	G2,52	G3,52	G4,52	I1,52	I2,52	I3,52	I4,52	X,52	TE ₅₂
5.3	C1,53	C2,53	C3,53	C4,53	G1,53	G2,53	G3,53	G4,53	I1,53	I2,53	I3,53	I4,53	X,53	TE ₅₃
5.4	C1,54	C2,54	C3,54	C4,54	G1,54	G2,54	G3,54	G4,54	I1,54	I2,54	I3,54	I4,54	X,54	TE ₅₄
5.m	C1,5m	C2,5m	C3,5m	C4,5m	G1,5m	G2,5m	G3,5m	G4,5m	I1,5m	I2,5m	I3,5m	I4,5m	X,5m	TE _{5m}

Iturria: Geuk egina.

Esportazioei dagokien zutabea ez litzateke lurraldez lurralde banatu behar, gainerako mundura egindako esportazioen balioak bakarrik hartuko lituzke-eta, zeren lurraldearteko esportazioak gainerako azken eskariko matrizean eta bitarteko kontsumoaren matrizean jasoko lirateke. Adibide sinplifikatua erabiliz, azken eskariko matrizea 3. laukian azaltzen den moduan geratuko litzateke.

Profesionalen munduan, taula hauek, esan bezala, Espainiako hainbat porturen (Pasaia, Vigo, Malaga, Ferrol edo Castellon) eragin ekonomikoaren zenbatespenerako erabili izan dira Puertos del Estado erakundeak abiarazitako lehiaketa publiko batzuen harira, zeinetan L.R.Klein Institutua beste enpresa pribatu batzuekin (TYPESA, Consultrans) aritu baita metodologia homogeen bat erabilia (metodologia horren oinarria kontsultatzeko, ikus Garcia eta Perez, 2005).

Halaber, Aragoi, Katalunia, Nafarroa eta Errioxako taulen azpimultzo bat erabili izan zen Ebro arroako lehorteak eragindako eragin sozioekonomikoak aztertzeko (Perez eta Barreiro, 2008).

Arlo akademikoan espainiar ekonomiaren lurraldearteko taulak ikerketa anitzetan erabili izan ohi dira, dela nazionaletan dela nazioartekoetan.

Llanoren azterlanean (2004 eta 2008), esate batera, erreferentziatzeko esparru gisa erabili ziren lurraldearteko spilloversak kalkulatzeko, "hypothetical regional extraction method" delakoaren bidez.

Ildo berean, Dones, Perez eta Llanok (2009) egitura- eta kohesio-fondoek 1995. eta 1999. urteen bitartean izandako eraginen lurraldez lurraldeko birbanaketaren analisia egin zuten lurraldearteko IOTen biderkatzaile implizituak erabilia.

1995eko taulak Sonis, Hewings eta Llanok (2007a) ere erabili zituzten Espainiako lurraldeen egitura sektoriala alderatzeko, eta input-output analisi-teknika berri batzuk erabili zituzten, "field of influence approach" edo "the mpm matrices", kasu. Horrez gainera, Sonis, Hewings eta Llanok (2007b), 1995eko eta 2001eko taulen antzeko teknikak aplikatuz, Espainiako autonomia-erkidegoen egitura sektorialekin denboran zehar izandako bilakaera aztertu zuten, eta Europan integratzeko prozesuak Espainiako lurraldeetako jarduera ekonomikoa kontzentratuagoa eta espezializatuagoa izateko zenbateraino ari zen sustatzen saiatu ziren baloratzen, Krugman-en proposamenaren eta Ekonomia Geografiko Berriaren beste egile batzuen ildotik.

Artal-Tur eta beste batzuk (2006) ere 1995eko taulak erabili zituzten Heckscher-Ohlin-Vanek-en eredua (HOV) erreferentzia gisa hartuta, espainiar lurraldeen arteko merkataritzako faktore-zuzkidura aztertzeko xedez. Lehen emaitza horien ondoren, Artal-Tur eta beste batzuk taula berberak erabili zituzten 2009. urteko azterketan, faktoreen emankortasunean ematen ziren aldeak HOV ereduko emaitzak hobetu zituzketen egiaztatzeko xedez. Eredu horren bestelako hiru zehaztapen erabili zituzten, "Hicks-en erako" diferentzia teknologiko neutralak zireneko aztarnak aurkitu zituzten, HOV ereduaren portaera nabarmen hobetzen lagunduz, "missing trade problem" delakoa desagertzea lortu baitzen.

3.2.Planteamendu orokorra

Behin metodologia orokorra eta erabili behar den oinarritzko tresna ezarri denean, Kutxabanken jarduerak sortutako eragin ekonomikoen zenbatespena, esan bezala, input-output tauletan biltzen diren jarduera-biderkatzaileetan oinarritutako planteamendu klasikoa erabiliz egin da. Biderkatzaile horiek sistema ekonomiko batean hasierako eragin batetik abiatuz sortzen den jarduera oso baten maila neurtzen dute, kasu honetan Kutxabankek garatutako jarduerarena.

Prozedura hori, labur azaltzekotan, hasieran eragina sortzen duen **Eragin Zuzena** delakotik, sistema ekonomikoan ekoizpen-kateak nahiz errenten sorrerak sortzen dutena zenbatu eta balioestean datza.

Zuzeneko ondasun eta zerbitzu horiek ekoizten dituztenek beste ondasun eta zerbitzu batzuk (bitarteko kontsumoak) erosi beharko dizkie gainerako sistema produktiboari, zeinak beste halako batzuk eskatuko dizkiete, bere aldetik, hornitzaileei, aztertutako sistemaren egitura produktiboa aintzat hartuta, eta haiek, orobat, errenta berriak sortuko dituzte eta enplegu gehiago eskatuko. Errenta eta enplegu multzo guzti horri **Zeharkako Eragina** deitu ohi zaio.

Eragina neurtzeko azterketek badute, oro har, beste hirugarren maila bat ere. Halako mailakoei **Eragin Induzituak** deritze, eta aurreko etapetan sortutako errentetatik eratorritako eragina jasotzen dute. Eragin induzitu horiek barne hartzen dute bai sortutako soldaten errenta guztietatik eratorritako azken kontsumoaren eragina bai jarduera eta errenta osoari zerga ezberdinak aplikatuzetik administrazio publikoak lortutako zerga-bilketa.

Kutxabanken eragin ekonomikoaren azterketa honetarako, zuzeneko jardueratzat hartu da finantza-bitartekaritzarako zerbitzuen ekoizpena. Berau kontabilitate nazionalaren (EKS-2010) arau orokorreari jarraituz kalkulatu da.

Zeharkako eraginak zehazterakoan, kutxako irteeren fluxua hartu da kontuan lehen-lehenik, bai jarduera produktiboari lotutako ondasun eta zerbitzuen eskuraketak (erosketak eta inbertsioak) bai lan-faktorearen (soldatak eta lansariak) eta kapitalaren (dibidenduak) ordainketak.

Horrez gain, zeharkako eragin hauek zehazteko kontuan hartu da ere burutzen duen finantza-bitartekaritzari esker beste ondasunen eta beste zerbitzuen ekoizpenaren gainean sortzen duen eragina. Horrekin zera esan nahi da: entitateak garatutako kreditu-jarduerari lotutako ekoizpena zenbatetsi dela.

Illo beretik, kudeatutako inbertsio-fondoen ordainketa garbi guztiak eta mantentzen diren pentsio-planetan ordaindutako prestazioak hartu dira aintzat. Izan ere, bi fluxuok familien errenta erabilgarria handitzea eragiten dutela eta azken buruan kontsumora bideratzen direla jo dugu.

Kasu guztietan Kutxabankek 2022ko ekitaldian erregistratutako datuak hartu dira kontuan: ordaindutako soldata eta lansariak, burututako erosketa eta inbertsioak, mailegu stocka, egindako diru-itzulketak eta prestazioak. Abiapuntuko datu horiek, ahal denean behintzat, jardueretan eta lurraldetan multzokatu dira. Abiapuntuko datu horiek, ahal denean behintzat, jardueretan eta lurraldetan multzokatu dira.


Aplikaturako kalkuluaren eskema 1. irudian azaltzen da modu agregatuan. Ikus dezakegunez, eragin ekonomikoen sekuentzia Kutxabankek zuzenean burututako jarduerarekin abiatzen da, lehenago ere aipatu izan dugunez, eta hori finantza-bitartekaritzako zerbitzuen ekoizpenaren balio osoaren bidez jaso da (**Eragin zuzena**).

Ekoizpen hori burutzeko, Kutxabank ondasun eta zerbitzu arruntak (erosketak) eta kapital-ondasunak (inbertsioak) erosi beharrean da beste hornitzaileei.

Ekoizpen-balioaren eta ondasun eta zerbitzu arrunten erosketen artean den aldea neurtuz, entitateak sortu duen errenta osoa (BPG) –soldaten errenten (soldatak eta lansariak) eta soldataz kanpoko errenten (mozkinak eta zergak) artean banatuta- lortuko litzateke.

Beste aldetik, Kutxabankek finantza-bitartekaritza burutzean baliabide andana (gordailuak) hartzen du eta gainerako eragileen eskura jartzen ditu ematen dituen maileguen bitartez.

1. irudia. Eraginen kalkuluaren eskema orokorra.



Iturria: Geuk egina.

Bigarren mailan **zeharkako eraginak** deritzena aurkitzen ditugu eta horietan sistema ekonomikoko gainerako eragileengan sortzen den ekoizpen, enplegu eta errenta osoa jasoko litzateke; hortaz, beharrezkoa da, lehenik, Kutxabanken jardueraren ondorioz ondasunak edo zerbitzuak nork ekoizten edo fakturatzten dituen identifikatzea.

Hasiera batean, Kutxabankek erosketak edo inbertsio modura eskuratzen dituen ondasun eta zerbitzu guztiak automatikoki bere hornitzaile zuzenen ekoizpen (fakturazio) bihurtzen dira. Adibidez, Kutxabankek ordaintzen dituen elektrizitate-hornidurak enpresa elektrikoek egiten dituzten fakturazioak dira.

Bestalde, Kutxabanken langileek eta bai dibidenduen hartzaileek hartuko dituzten errentak aurrezteko edo kontsumitzeko erabiliko dituzte, eta beraz, kutxako irteera fluxu hauen (soldatak eta dibidenduak) parte bat beste enpresa batzuen fakturazio gehigarriak izango dira; esate baterako, taldeko langileek beren erosketak egiten dituzten dendak.

Gainera, emandako kredituen fluxuek ere, beren aldetik, beste enpresa batzuen ekoizpena eragingo dute. Horrela beraz, hipoteka-kredituek higiezin horiek saltzen dituzten enpresa eraikitzaileetan fakturazioa eragingo dute, edo kontsumo-kredituek beren bitartez finantzatzen diren automobilak saltzen dituzten enpresetan fakturazioa sortuko dute.

Era berean, jarduera-arlo ezberdinetako ekoizpen-jardueretarako emandako kredituek sektore horien ekoizpenaren zati bat ahalbidetzen dutela esan daiteke. Adibidez, industria metalikoen tailer bati makineria eskuratzeko emandako kreditu batek ahalbidetzen du tailer horrek bere ekoizpena egitea eta bere bezeroei fakturatzeko.

Beste aldetik, inbertsio-fondoen eta pentsio-planen harpidedunek errenta erabilgarria hazi egin zaiela ikusiko dute ordainketa garbiak edo prestazioak jaso ahala. Normalean, zenbateko horiek kontsumorako erabiliko dituzte eta, ondorioz, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena areago haztea eragingo dute kontsumo hori hornitzen duten sektoreetan.

Dena den, zeharkako eraginak ez dira horretan amaitzen, izan ere, bai Kutxabanken zuzeneko hornitzaileek (adibidez enpresa elektrikoak), bai bere langileentzako kontsumo-ondasunen ekoizleek (adibidez enpresa komertzialak), kredituen bidez eskuratzen diren ondasun eta zerbitzuen ekoizleek (eraikuntzako edo automobilen salmentako enpresak), edo kreditu zuzenekin finantzatzen diren enpresek (industria metalikoak) beren aldetik ere ondasunak eta zerbitzuak erosi behar dizkiete beste enpresa batzuei, horrela guztirako ekoizpena handitzen lagunduz ekoizpen-kateetan zehar, eta horren azken balioa Input-output Taulen metodologiaren bidez zehazten da, ondoren azalduko duguna.

Azkenik, hirugarren mailan **Eragin induzitua** deritzona izango genuke, eta hori zeharkako ekoizpentik ondorioztatzen diren soldaten errentak jasotzen dituzten langile guztiek egiten duten azken gastuarekin lotuta dago; hau da, aurreko adibideekin jarraituz, enpresa elektrikoetako, dendetako, eraikuntza eta automobilen enpresetako edo industria metalikoetako langileei kontsumo-ondasunak saltzen dizkieten enpresek egiten duten fakturazioa izango litzateke eragin induzitua.

3.3.Eraginen zehaztapena

3.3.1 Eragin zuzenak

Aurreko atalean jaso den moduan, Kutxabank Taldeak finantza-bitartekaritzaren jarduerari buruz (kredituak eta gordailuak) eta fondoen zein pentsio-planen kudeaketari buruz nahiz Taldearen ohiko eragiketei buruz (erosketak, inbertsioak, soldadak, zergak, eta abar) emandako informazioan oinarrituz egiten da eragin zuzenen zehaztapena.

Europako Kontuen Sisteman (EKS-2010) jasotako arauen arabera, finantza-zerbitzuen adarraren ekoizpena zuzenean kobratutako zerbitzuetatik (komisioak) eta Zeharka Neurtutako Finantza Bitartekaritzako Zerbitzuak (ZNFBZ) deritzenetatik abiatuta zehazten da, tasa aktibo eta pasiboen arteko diferentzietatik ondorioztatzen direnak.

Kutxabanken ekoizpenaren estimazio zuzena proiektu honen dimentsiotik kanpo geldituko litzatekeenez, ekoizpen horren zeharkako estimazioa egitea erabaki da, maila agregatuan kreditu eta gordailu guztien gainean entitate honek duen kuotetatik abiatuz.


Lehen urrats modura, 2022an finantza-zerbitzuen adarraren ekoizpen guztiaren estimazioa egin da, eskuragarri dagoen azken datua erreferentzia modura hartuz, 2020. urteari buruzkoa hain zuzen, eta Espainiako Bankuak 2020. eta 2022. urteen artean erregistratutako interesengatik marjinaren hazkunde-tasa erabiliz, bi magnitudeen arteko erlazioa balioetsi eta elastikotasun ia guztiz unitarioa erakusten dutela frogatu ondoren, segidan doan grafikoan ikusten den moduan.

1. Taula. Finantza-zerbitzuen ekoizpenaren estimazioa 2022an

Milioi €-tan	2020	2022	Hazk. (%)
Interes-marjinak (Espainiako Bankua)	22.982	24.435	% 6,3
Finantza Zerbitzuen Ekoizpena (Kontabilitate Nazionala)	47.468	55.350	% 16,6

Iturria: Geuk egina. Espainiako Bankuaren eta INEren datuak.

1. Grafikoa. Finantza-zerbitzuen adarraren ekoizpenaren eta interesengatiko marjinaren arteko erlazioa



Iturria: Geuk egina. Espainiako Bankuaren datuak.

Finantza-bitartekaritzako zerbitzuen ekoizpen guztiaren estimazioa egin ondoren, Kutxabankek gordailu eta kreditu guztien gainean duen kuota erlatiboen kalkulua egin zen, eta batez beste %2,57ko ehunekoa atera zen.

$$QC_{Kb} = \frac{Kredituak_{Kb}}{Kredituak_{tot}} \quad QD_{Kb} = \frac{Gordailuak_{Kb}}{Gordailuak_{tot}} \quad Q_{Kb} = \frac{(QC_{Kb} + QD_{Kb})}{2} \quad [1]$$

Kuota hori 2022rako aurreikusitako ekoizpen guztiari aplikatuz, Kutxabanken ekoizpen propioaren balioa aterako litzateke; aldiz, ekoizpen horren eta egindako bitarteko kontsumoen (erosketak) balioaren arteko aldearekin kalkulatu litzateke azkenik Zuzeneko Balio Erantsia.

$$\begin{aligned} \text{produktzioa}_{Kb} &= Q_{Kb} * \text{produktzioa}_{guztira} \\ \text{BEG}_{Kb} &= \text{produktzioa}_{Kb} - \text{Erosketak}_{Kb} \end{aligned} \quad [2]$$

2. Taula. Ekoizpenaren eta Kutxabanken BEGaren balioespina 2022an

Miloi €tan	Sistema guztira	Kutxabank	Kuota	Batez beste	Guztira	Kutxabank
Pasiboa Guztira	2.842.455				Ekoizpena (*)	
Gordailuak (OSR gaz.)	2.069.349	50.073	% 2,42		55.350	1.522
Sektorizatu gabea	773.106			% 2,57	Erosketak	
Aktiboa Guztira	2.842.455					493
Gainerako Aktiboak	943.735				BEG	
Kreditua	1.941.099	52.779	% 2,72			1.124

Iturria: Geuk egina. Espainiako Bankuaren eta Kutxabanken datuak.

(*) Ekoizpenaren balioak bi alderdi hartzen ditu: finantza-jarduerak berak sortzen duen ekoizpena (1.422 milioi €) eta hiru fundazio jabeen jarduerak sortzen duten ekoizpena (100 milioi €). Balio hori kalkulatzeko, merkatura zuzenduta ez dauden ondare eta zerbitzuen ekoizpenean (erosketen, solda-tadunen ordainsarien eta zergen batuketan, adibidez) ezarri beharreko arauak erabili dira.

Ekoizpenaren lurralde-banaketa Kutxabankek autonomia-erkidego bakoitzean dituen kreditu eta gordailu guztien bolumenarekiko proportzio zuzenaren bidez kalkulatzen da, eta Balio Erantsia lortzen da ekoizpen horren eta erkidego bakoitzean egindako erosketen arteko aldearen bitartez.

$$\text{produkzioa}_{Kb,r} = \frac{(Kredituak_{Kb,r} + Gordailuak_{Kb,r})}{\sum_r (Kredituak_{Kb,r} + Gordailuak_{Kb,r})} * \text{produkzioa}_{Kb} \quad [3]$$

$$\text{BEG}_{Kb,r} = \text{produkzioa}_{Kb,r} - \text{Erosketak}_{Kb,r}$$

3.3.2 Zeharkako eraginak

Zeharkako nahiz induzitutako eraginaren kalkulurako Leontief-en eredu klasikoetako metodologia erabiliko da, sistema ekonomiko jakin batean hasierako eskaera (**W**) betetzeko beharko litzatekeen ekoizpen guztiaren kopurua (**X**) modu orokorrean kalkulatzeko ahalbidetzen diguna.

$$X = (I - A)^{-1} * W \quad [4]$$

Bertan $[I-A]^{-1}$ matrizea Leontiefen alderantzizko matrize edo eskaeraren biderkatzaileen matrize modura ezagutzen da eta bere elementu bereizgarriak a_{ij} dira koefiziente tekniko modura ezagutzen direnak, **j** sektoreak **i** sektore bakoitzari ekoizpen-unitate bakoitzeko erosten dizkion Bitarteko Kontsumoen (gazt. CI) errekerimendu unitarioak jasotzen dituztenak.

$$a_{i,j} = \frac{\text{BenetakoKonts.}_{i,j}}{X_j} \quad [5]$$

Dagokigun kasuan, lurraldearteko taulak 21 jarduera-adar ezberdintzen ditu guztira, 19 lurralde desberdinetan, eta horregatik biderkatzaileen matrizea 399 x 399 dimentsiokoa da, eta bertan, koefiziente teknikoaren matrizeko elementuetako bakoitza honela definituta etorriko litzateke:

$$a_{i_1, j_2} = \frac{\text{BitartekoKonts.}_{i_1, j_2}}{\text{BenetakoEkoiz.}_{j_2}} \quad \forall r_1, r_2 = 1, 2, \dots, 19 \quad [6]$$

Hor zenbakitzailea da lurraldeko j sektoreak r_1 lurraldeko i sektoreari eskatzen dizkion Bitarteko Kontsumoen balioa (gazt. Cl), eta izendatzailea lurraldean j sektoreak duen Benetako Ekoizpena.

Era berean, gure kasuan \mathbf{W} bektorea 399 lerrotako zutabe-bektorea izango da, \mathbf{r} lurralde bakoitzeko \mathbf{s} sektore bakoitzak jasotzen duen hasierako eskaera edo eragina adierazten duena; bestalde, \mathbf{X} bektoreak dimentsio berdina izango du eta hasierako eragin horren ondorioz \mathbf{r} lurralde bakoitzeko \mathbf{s} sektore bakoitzean sortzen den ekoizpen guztizkoa jasoko du.

Formulazio orokor hori zeharkako eraginaren nahiz eragin induzituen zehaztapenerako erabili da, D eragin-bektorearen osaketa aldatuz kasuetako bakoitzean.

Hortaz, zeharkako eraginaren kalkulurako segidan aipatzen diren eragin-bektoreak hartu dira kontuan, bereiziz ohiko jarduerari dagozkionak eta finantza-bitartekaritzaatik datozenak.

Eragin-bektoreak jardueraren arabera:

W1 Erosketa eta inbertsioen bektorea: \mathbf{r} lurralde bakoitzeko \mathbf{s} jarduera-adar bakoitzari Kutxabankeki erosi dizkien ondasun eta zerbitzuen balioa jasotzen duena, Taldearen erregistroetatik zuzenean aterata.

W2 Kontsumoko gastuen bektorea: Kutxabanken langileek eta inbertsio-fondoengatik diru-itzulketa garbien ondorioz zein pentsio-planengatik prestazioen ondorioz hartzaileek azken kontsumoan egindako gastua jasotzen duena.

Kasu honetan Taldearen erregistroek soilik ahalbidetzen digute errenta horien lurralde-kokapena bereiztea eta, beraz, eragin-bektorea eraikitzeke beharrezkoa izango da, lehenik eta behin, errenta horien ondorioz sortzen den kontsumoaren zenbateko osoa zehaztea, eta ondoren, kontsumo hori lurralde bakoitzeko ekoizpen-sektore ezberdinetan banatu beharko da.

Lur.Konts. lurralde bakoitzean sortutako kontsumoaren zenbateko osoa kalkulatzeko, **GSr** gizarte-kotizazioen soldata eta lansari guztien zenbatekotik abiatzen gara. Horri gehitu behar zaio **Lur.Dib.** lurralde bakoitzean ordaindutako dibidenduak; zenbateko horri kendu behar zaio errentaren gaineko zergagatik ordainketen estimazio bat, era horretan lortzen da lurralde bakoitzeko errenta erabilgarria (**Lu.Err.Erab.**); horri kendu behar zaio aurrezteko joera; eta, azkenean, sortu den kontsumo guztiaren balioa lortzen da .

$$\begin{aligned} \text{Erren.Erab.} &= (\text{GSr} + \text{Lur.Dib.}) * (1 - i) \\ \text{Lur.Konts.} &= \text{Lur.Err.Erab.} * (1 - a) \end{aligned} \quad [7]$$

Hor i da errentaren gaineko zergaren batez besteko zerga-tasa eta a da aurrezteko joera.

Lur.Kont. lurralde bakoitzean sortutako guztirako kontsumo horren sektore eta lurraldekako banaketa lortzeko, q_{s,r_1,r_2} lurraldearteko Taulatik ondorioztatutako kontsumo-egiturak erabiliz egiten da, r_1 lurralde bakoitzeko kontsumitzaileek r_2 lurralde bakoitzeko s sektore bakoitzari erosten dizkieten ehunekoak zehaztuz, honela kalkulaturik:

$$q_{s,r_1,r_2} = \frac{Konts._{sr_1,r_2}}{\sum_{s,r_1} Konts._{sr_1,r_2}} \quad \forall r_1,r_2 = 1,2,\dots,19 \quad [8]$$

Hor C_{sr_1,r_2} da lurraldeko kontsumitzaileek r_1 lurralde bakoitzeko s sektoreak ekoiztutako ondasun eta zerbitzuengatik egindako gastua.

Eragin-bektoreak finantza-bitartekaritzaren arabera:

W3 Hipoteka-kredituengatik eragin-bektorea, lurralde eta sektore bakoitzean emandako hipoteka-maileguengatik eskuratu den ekoizpenaren balioa jasoko lukeena.

W4 Kontsumorako emandako bestelako kredituengatik eragin-bektorea, lurralde eta sektore bakoitzean etxeei eta IAGEPi emandako gainerako kreditutik eskuratu den ekoizpenaren balioa jasoko lukeena.

W5 Ekoizpen-jarduerei emandako kredituengatik eragin-bektorea, pertsona juridikoei emandako kredituei lotutako ekoizpena jasoko lukeena, aintzat hartutako sektore bakoitzerako bereizita, eta horiekin batera enpresa-jarduera finantzarioari emandako kredituak, finantza-bitartekaritzaren sektoreari esleitutakoak eta administrazio publikoei emandakoak, hain zuzen ere, administrazio publikoaren sektoreari esleituta.

Kasu honetan Kutxabank Taldearen erregistroek kreditu-stockari buruzko informazioa ematen digute tipologiaren, jarduera-sektorearen eta lurraldearen arabera ezberdinduta, eta ondorioz, beharrezkoa da kreditu-balio horiei lotutako ekoizpenaren zenbatekoaren estimazioa egitea.

Estimazio hori egiteko estatuaren osotasunean kreditu-stockak duen guztirako datuak jaso dira, tipologiaren eta jarduera-adarren arabera bereizita, Espainiako Bankuak emanda, erreferentziako agregatu makroekonomikoen serieekin batera (etxeetako bizitegi-inbertsioaren guztizkoa, etxeetako kontsumo osoa ondasun iraunkorretan, IAGEPn kontsumo osoa eta jarduera-adarretako bakoitzaren Balio Erantsi Gordina, oraingoan Estatistika Institutu Nazionalak emanda).

1992tik 2022ra bitartekoak² diren estatistika-serie hauekin eta erregresio-ereduen bidez magnitude β_i bakoitzak kreditu-stockarekiko dituen elastikotasun berezien estimazioa egin da, era honetako adierazpen baten bidez:


$$\ln(M_{i,t}) = \alpha + \beta_i * \ln(KredStock_{i,t}) + u_i \quad [9]$$

Hor $M_{i,t}$ dira i magnitude bakoitzak t epealdian dituen datuak eta $Kred.Stock_{i,t}$ (gazt. SC) da i motako Kreditu-stockak t epealdian.

² 2022rako agregatu makroekonomikoak CEPREDEK egindako balioespenak dira.

2. Grafikoa. Aurreikusitako Jarduera / Kreditua elastikotasunak

Jarduera / Kreditua elastikotasuna



Iturria: Geuk egina.

Jarduera ekonomikoak (balio erantsia, kontsumoa eta inbertsioa) kredituaren aurrean duen elastikotasunaren estimazio hauetatik ondorioztatutako emaitzak 2. grafikoan jaso dira eta, batez beste, 0,52aren inguruan kokatzen dira, BBVA Research Behatoki Ekonomikoak (2013) BPGren osotasunerako³ argitaratutako balioen oso antzekoak.

Azkenik, elastikotasun horiek lurralde eta jarduera-adar bakoitzean Kutxabanken kreditu-stockei aplikatuta, entitatearen kreditu-jarduerarekin lotutako ekoizpenaren guztirako zenbatekoak lortuko lirateke.

Garrantzitsua da ohartaraztea planteamendu honen arabera estatuko ekoizpen guztia bitartekaritza bidezkoa dela, hau da, kreditu osoaren fluxuen baitakoa dela nola edo hala, eta hortaz, finantza-entitate guztien eragin agregatua bat etorriko litzateke estatuko guztirakoarekin.

³ BBVA Research (2013): "La relación del estado estacionario entre el crédito y el PIB en la economía española". Ekonomiaren Behatokia.

Sektore eta lurralde bakoitzean finantzatutako ekoizpen-mailen azken zehaztapena lortuko litzateke, esan dugun bezala, Kutxabankek emandako kreditu-stockaren zenbatekoei kalkulaturako elastikotasunak aplikatuta, eta ondorengo ñabardurak kontuan hartuta:

- Hipoteka-maileguen kasurako, lurralde bakoitzean emandako guztirako zenbatekoak eskura ditugunez, eraikuntza eta zerbitzu arloko jardueri esleipen sektorial bat egin zaie, Eraikuntzaren Egituraren Inkestan jasotako emaitzetatik ondorioztatuta, %2ko higiezin-marjina kontuan harturik eta BEZagatik %9,4ko batez bestekoa kendu ondoren.

$$\begin{aligned} W3_{r,Eraikuntza} &= (\beta_{mail} * SC_{r,mail.}) * (1 - t_{BEZ}) * (1 - m_{inmob}) \\ W3_{r,Zerbitzuak} &= (\beta_{mail.} * SC_{r,mail.}) * (1 - t_{BEZ}) * m_{inmob} \end{aligned} \quad [10]$$

- Etxebizitzaren nahiz IAGEPre kontsumorako kredituaren kasuan lurralde bakoitzean emandako guztirako zenbatekoak ere eskuragarri ditugu, eta horietan sektorekako banaketa egin da lurralde bakoitzaren kontsumo-egiturak erabiliz, soldaten errentengatik eta banatutako dibidenduengatik eragin-bektoreen kasuaren antzera.

$$W4_{r,s} = (\beta_{kontsumoa} * SC_{r,kontsumoa}) * q_{sr1,r} \quad [11]$$

- Ekoizpen-jardueri emandako krediturako, jarduera-adar eta lurraldeka erregistro bereiziak ditugunez, aski izango da Balio Erantsi Gordinaren terminoetan kalkulaturako datuak ekoizpen-datu bihurtzea, horretarako aplikatuz r lurralde eta s sektore bakoitzari dagozkion $BEK_{r,s}$ Balio Erantsiko Koefizienteak (gaztelera CVA).

$$\begin{aligned} W5_{r,s} &= (\beta_s * SC_{r,s}) * \frac{1}{(1 - BEK_{r,s})} \\ BEK_{r,s} &= \frac{BE_{r,s}}{EKOIZ_{r,s}} \end{aligned} \quad [12]$$

Behin W1etik W5era bitarteko bost eragin-bektoreak eraiki ondoren, Leontiefen oinarriko eredua aplikatu da, [5] adierazpenaren bitartez, Ai barne-koefiziente teknikoaren matrizea erabiliz, lurraldearteko IOTen gainean kalkulatu, [4]-an jasotzen den moduan.

$$X_i^{ind} = (I - A^i)^{-1} * W_i \quad \forall i = 1, 2, \dots, 5 \quad [13]$$

Era honetara zeharkako ekoizpen osoaren bost bektore lortzen dira guztira, X1^{zeh.}-tik X5^{zeh.}-ra bitartean, 19 lurraldeetako 21 adarretako bakoitzean sortuko liratekeen ekoizpenak jasoko litzatekeen.

Sortutako guztirako ekoizpenaren terminoetan lortutako balio horietatik abiatuta sortutako balio erantsia (BPG) kalkulatu daiteke, bai eta ekoizpen horretara lotutako enpleguaren guztirakoa ere.

Kalkulu horiek egiteko, r lurralde bakoitzeko s ekoizpen-adar bakoitzaren **BalEranKoef**_{r,s} Balio Erantsiko Koefizienteak eta **EK**_{r,s} Enplegu Koefizienteak erabiliko dira.

Balio erantsiko koefizienteak ekoizpenaren guztirakoaren eta balio erantsiaren arteko zatiduraz kalkulatu dira, eta jarduera-adar bakoitzak ekoizten duen unitate bakoitzeko sortzen duen Balio Erantsiaren zenbatekoa adierazten dute.

$$Bal.Eran.Koef_{r,s} = \frac{Bal.Eran_{r,s}}{EKOIZ_{r,s}} \quad [14]$$

Bestalde, enplegu-koefizienteak kalkulatu dira jarduera-adar bakoitzak erabiltzen duen lanpostu kopuru osoaren eta adar horren ekoizpen osoaren arteko zatiduraz, eta ekoiztutako unitate bakoitzak behar duen eskulan unitateak adierazten dituzte.

$$Enpl.Koef_{r,s} = \frac{Lanpostuak_{r,s}}{EKOIZ_{r,s}} \quad [15]$$

Koefiziente horiek kalkulatu zeharkako ekoizpenaren bektoreei aplikatuz, Balio Erantsiaren $BalEranGi^{zeh.}_{r,s}$ eta $Enpli^{zeh.}_{r,s}$ guztirako zenbatekoak lortuko lirakeke, i jatorri-iturri bakoitzerako (Erosketak eta inbertsioak i=1, Errentak i=2, Hipoteka-kreditua i=3, kontsumorako kreditua i=4 eta ekoizpen-jardueretarako kreditua i=5).

$$\begin{aligned} Bal.Era.Gi_{r,s}^{zeh.} &= Xi_{r,s}^{zeh.} * Bal.Era.Koef_{r,s} \\ Enpl.i_{r,s}^{zeh.} &= Xi_{r,s}^{zeh.} * Enpl.Koef_{r,s} \end{aligned} \quad [16]$$

Eskuragarri dauden Input-Output taulak 2015. urteari dagozkionez, Enplegu Koefizienteak pixka bat egokituak izan dira $\Delta s_{2021/2015}$. azken urteetan zehar erregistratu diren balizko ekoizpen-irabaziak jasotzeko.

$$CE_{r,s}^{2021} = CE_{r,s}^{2015} * (1 - \Delta p_{2021/2015}) \quad [17]$$

Balioetsitako enplegu-mailetatik abiatuta kalkulatu dira sortutako soldaten errentak, $Sort.Err.i_{r,s}$ enplegu hori batez besteko soldatekin biderkatuz jarduera-adar eta lurralde bakoitzean.

Enplegu-koefizienteekin bezala, $Bat.BEst.Sold_{r,s}$ sektorekako Batez Besteko Soldatak (gazteleraz SM) eguneratu egin dira soldatadun bakoitzak soldatengatik izan duen batez besteko irabaziak aintzat hartuz, $\Delta s_{2021/2015}$

$$\begin{aligned} RAI_{r,s}^{indi} &= EMPi_{r,s}^{indi} * SMi_{r,s}^{2021} \\ SM_{r,s}^{2021} &= SM_{r,s}^{2015} * (1 - \Delta s_{2021/2015}) \end{aligned} \quad [18]$$

Azkenik $Ust.Sob.Gord.i_{r,s}$ enpresa-errentak kalkulatu dira -Ustiapeneko Soberakin Gordina-, (gazt. Excedente Bruto de Explotación), $Sort.Bal.Eran_{r,s}$, sortutako balio erantsiaren (gaz. VAB), $Sold.Err.i_{r,s}$ Soldatetako Errenten eta zerga garbien doikuntzaren arteko aldeaz, azken horiek kalkulatu Lurralde eta Sektore bakoitzeko Batez Besteko Tasak $lsbbt_{r,s}$, (gazt. timp) $Xi_{r,s}$ kalkulatu zeharkako ekoizpenei aplikatuz.

$$\begin{aligned} Ust.Sob.Gord_{r,s}^{zeh.} &= Bal.Eran.Gord.i_{r,s}^{zeh.} - Sold.Err.i_{r,s}^{indi} - ZerGi_{r,s}^{zeh.} \\ ZerG_{r,s}^{zeh.} &= Xi_{r,s}^{zeh.} * lsbbt_{r,s} \end{aligned} \quad [19]$$

i=1 erosketak eta inbertsioengatik eta i=2 errentengatik sortutako zeharkako eraginaren agregazioz lortuko lirakeke jardueragatiko zeharkako eraginak, eta aldiz, beste hiru jatorrien agregazioz, i=3 hipoteka-kredituak, i=4 kontsumorako kredituak eta i=5 ekoizpen-jardueretarako kredituak, bitartekaritzagatik zeharkako eraginak lortuko genituzke.

3.3.3 Eragin induzituak

Eragin ekonomikoaren azterketa gehienetan **eragin induzituak** deritzena jasotzen dira, eta horiek izango lirateke aurreko eraginaren ondoriozko errentak sortutako eraginak.

Ohiko literaturan normalean bi eragin induzitu mota bereizten dira, zorrozkiki **errenta-eraginak** deritzenak eta **zerga-eraginak** bezala ezagutzen direnak.

Errenta-eraginek soldaten errentetatik, zuzenak nahiz zeharkakoak, eta ondorenean horiek kontsumoan duten aplikaziotik sortzen den ekoizpen, balio erantsi eta enplegu guztia jasotzen dute.

Bestalde, zerga-eraginek ekoizpenetatik, balio erantsitik eta enplegutik, zuzena nahiz zeharkakoa edo induzitua izan, sortuko litzatekeen zerga-bilketa osoa jasotzen dute.

Dagokigun kasuan, soldaten errenta zuzenen eraginak zeharkako ekoizpen-jatorri baten modura hartu dira kontuan, eta hortaz, kalkulaturako zeharkako enpleguetatik ondorioztatutako soldaten errentetara mugatuko dira eragin induzituak.

Era berean, zuzeneko zerga-eraginei dagokienez, Kutxabanke zerga-figura ezberdinetarako eman duen informazioa eskuragarri daukagu, eta beraz, berriz ere, zerga-eraginaren estimazioa zeharkako errentetatik abiatuta egingo da.

Errentetatik eragin induzituen zehaztapena egiteko zeharkako errentekin erabilitako prozeduraren antzekoa aplikatuko da, baina kasu honetan **r** lurralde bakoitzean sortutako **Sold.Err.i^{zeh}_r**, zeharkako Soldatetako Errentetatik (gazt. RA) abiatuz.

$$Sold.Err.i_r^{zeh} = \sum_s Sold.Err.i_{r,s}^{zeh} \quad [20]$$

Soldaten errenta horiei kendu behar zaizkie bai zerga zuzenak eta bai gizarte-kotizazioak, horrela **Err.Erab.i^{zeh}_r**, Errenta Erabilgarriaren zenbatekoa lortuz (RD gaztelera), horri kontsumorako batez besteko joera aplikatu behar zaio, eta horrela lortuko da, azkenik, **Kont.i^{zeh}_r**, zeharkako enplegu horiei lotutako Kontsumo osoaren zenbatekoa, banatutako errenta zuzenekin egin zen moduan.

$$\begin{aligned} Err.Erab.i_r^{zeh} &= Sold.Err.i_r^{zeh} * (1 - gs) * (1 - i) \\ Konts.i_r^{zeh} &= Err.Erab.i_r^{zeh} * (1 - a) \end{aligned} \quad [21]$$

Hor **gs** da Gizarte Segurantzaren kotizazioen batez besteko tasa, **i** pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren batez besteko tasa eta **a** aurrezteko joera.

Kontsumoko zenbateko horretatik abiatuta **WNI_{r,s}** induzitutako eragin-bektore berri batzuk kalkulatu lirateke, **W2** errentako zeharkako bektoreak kalkulatu ziren moduaren antzera, eta horien gainean, berriz ere, ekoizpen-biderkatzaileen input-output eredu aplikatuko litzateke.

$$XNI^{indu} = (I - A^i)^{-1} * WNI \quad \forall i = 1, 2, \dots, 5 \quad [22]$$

XNI_{r,s}^{indu} horrela kalkulaturako ekoizpen osoaren eta **WNI_{r,s}** eragin-bektoreen arteko aldeaz lortuko litzateke, azkenik, **Xi_{r,s}^{indu}** zeharkako ekoizpen garbia.

$$Xi_{r,s}^{indu} = XNI_{r,s}^{indu} - WNI_{r,s} \quad \forall i = 1, 2, \dots, 5 \quad [23]$$

Zeharkako eraginaren antzera, ekoizpen horretatik abiatuta lortzen da Balio erantsiaren, enpleguaren, soldaten errenten eta enpresa-errenten zehaztapena.

Zerga-eraginaren kasuan ekoizpenarekin lotutako zerga-figura nagusiak (zerga zuzenak eta zeharkakoak), balio erantsia eta zeharkako eta eragindako enplegua identifikatzen dira; eta batez besteko zerga-tasa batzuk aplikatuz diru-bilketa osoa lortuko litzateke.

Esaten genuen bezala, zerga-figura horien barnean daude bai zeharkako presio fiskala (BEZa eta zerga bereziak) BPGren portzentaje modura kalkulaturik, bai gizarte-kotizazioak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) eta enpresen zerga zuzenak (sozietate-zerga).

Zerga-eraginaren zehaztapena zerga-figura ezberdinen oinarri zergagarriak kalkulaturik egiten da eta ondoren horiei batez besteko tasa bat aplikatuz, estatuko guztirako diru-bilketaren eta oinarri zergagarri horiei dagokien baliokide makroekonomikoaren arteko zatiduraz kalkulaturikoa.

3. Taula. Batez besteko zerga-tasak

Zerga Figura	Zerga Oinarria	Batez besteko tasa
BEZ eta Zerga Bereziak	BEG Osoa	% 12,4
Ekoizpenaren gaineko Zerga Garbiak	Ekoizpen osoa	% 0,72 (*)
PFEZ	Soldatapeko errenta	% 13,7
Sozietateen gaineko zerga	Ustiapenaren soberakin garbia	% 11,3
Gizarte-kotizazioak	Soldatapeko errenta	% 31,4

(*) Jarduera-adar guztien batez besteko balioa

Iturria: Geuk egina. INEren datuak.

Ondorio praktikoetarako, zerga-tasen zehaztapena estatu mailan egin da, lurralde mailan ez baitago informazio aski xehea, eta horregatik diru-bilketaren lurralde-esleipena estimaturik oinarri zergagarrien kokapenetik ondorioztatzen da (ekoizpena, BEG edo lurralde-enplegua).

3.3.4 Eragin probintzialen zehaztapena

Aurreko ataletan jaso dugun bezala, garapen metodologiko guztiak Input-Output Taulak zehaztuta dauden lurralde-oinarriaren gainean eginda daude. Nolanahi ere, Andaluziako Kordoba eta Jaen probintziek duten interes berezia kontuan harturik, Erkidego horretako emaitza agregatuak birkokatzeke tratamendu gehigarri bat egin da, bi probintzia horiek lurralde horretako gainerakoetatik bereiziz.

Eragin birkokatze probintzial hori egiteko Kutxabankek emandako datuetatik abiatu gara, hain zuzen ere, probintzia horietako bakoitzean egindako erosketa, inbertsio, soldata, zerga eta kreditu-jardueretatik.

Eragin zuzenen kasuan ekoizpen probintzialaren maila kalkulatu da bi probintzia horietako bakoitzean kokaturiko kredituen eta gordailuen batez besteko ehunekoa lurraldeko ekoizpen osoari aplikatuz.

$$ekoiz_p^{ZUZ} = ekoiz_{AND}^{ZUZ} * \frac{(Kredituak_p + Gordailuak_p)}{(Kredituak_{AND} + Gordailuak_{AND})} \quad \forall p = Kordoba, Jaen \quad [24]$$

Ondoren, probintzia horietan egindako erosketen balioa kenduz Balio Erantsi Gordina lortzen da, eta aldiz, soldatak eta alokairuak Kutxabankek emandako datuetatik lortzen dira zuzenean.

$$Bal.Eran.Gord._p^{zuz} = ekoiz_p^{zuz} - Erosketak_p \quad \forall p = Kordoba, Jaen \quad [25]$$

Azkenik, zerga probintzialak probintzia bakoitzean estimatutako ekoizpenarekiko modu proportzionalen lortzen dira.

$$Zergak_p^{zuz} = Zergak_{AND}^{zuz} \frac{prod_p^{zuz}}{prod_{AND}^{zuz}} \quad \forall p = Kordoba, Jaen \quad [26]$$

Zeharkako eraginetan, bai jarduera nahiz kreditukoetan, probintzia bakoitzeko ehuneko bereziak lurralderako kalkulaturako eragin globalei aplikatu zaizkie, eragin-iturrietako bakoitza bereiziz (erosketak eta inbertsioak, errentak, hipoteka-kreditua, kontsumorako kreditua eta ekoizpen-kreditua).

$$Xi_p^{zeh} = Xi_{AND}^{zeh} \frac{Wi_p}{Wi_{AND}} \quad \forall p = Kordoba, Jaen \quad i = 1,2,\dots,5 \quad [27]$$

$$Bal.Eran.Gord.i_p^{zuz} = Bal.Eran.Gord.i_{AND}^{zuz} \frac{Wi_p}{Wi_{AND}} \quad \forall p = Kordoba, Jaen \quad i = 1,2,\dots,5 \quad [28]$$

$$Enpl.i_p^{zeh} = Enpl.i_{AND}^{zeh} \frac{Wi_p}{Wi_{AND}} \quad \forall p = Kordoba, Jaen \quad i = 1,2,\dots,5 \quad [29]$$

Azkenik, eragin induzituak kalkulatzeko probintzietako bakoitzaren zeharkako enpleguaren ehunekoak lurraldeko guztirako agregatuei aplikatzen zaizkie.

$$Xi_p^{indu} = Xi_{AND}^{indu} \frac{Enpl.i_p^{zeh}}{Enpl.i_{AND}^{zeh}} \quad \forall p = Kordoba, Jaen \quad i = 1,2,\dots,5 \quad [30]$$

$$Bal.Eran.Gord.i_p^{indu} = Bal.Eran.Gord.i_{AND}^{indu} \frac{Enpl.i_p^{zeh}}{Enpl.i_{AND}^{zeh}} \quad \forall p = Kordoba, Jaen \quad i = 1,2,\dots,5 \quad [31]$$

$$Enpl.i_p^{indu} = Enpl.i_{AND}^{indu} \frac{Enpl.i_p^{zeh}}{Enpl.i_{AND}^{zeh}} \quad \forall p = Kordoba, Jaen \quad i = 1,2,\dots,5 \quad [32]$$

4. Emaitzak

Emaizten aurkezpenari buruzko atal hau hasteko, Kutxabank Taldeak 2022an izan duen jarduera-maila erakusten duten zenbatekorik adierazgarrienak jasoko ditugu, eragin ekonomiko ezberdinak kalkulatzeko oinarri bezala balio izan dutenak.

709 bulego eta 5.680 langile baino gehiagorekin, Kutxabank Taldeak 2022an ia 50.073 milioi euroko guztirako saldo bat izan zuen gordailuetan eta 52.779 milioi euro baino gehiagoko kreditu-stocka mantendu zuen.

4. Taula Finantza-jarduera

Datuak eurotan

Autonomia Erkidegoa	Langile kopurua urte amaieran	Bulegoak	Kreditu-bolumena GUZTIRA	Gordailu-bolumena GUZTIRA	Balantzetik kanpoko Baliabideen bolumena GUZTIRA	NEGOZIO BOLUMENA
Kordoba	1.004	113	3.168.020.266	6.308.074.272	1.356.162.317	10.832.256.855
Jaen	201	38	740.935.073	1.139.034.667	250.661.711	2.130.631.451
Gainontzekoa	603	113	5.740.978.033	2.220.010.831	532.993.588	8.493.982.452
Andaluzia	1.808	264	9.649.933.372	9.667.119.770	2.139.817.616	21.456.870.758
Aragoi	36	7	766.291.539	198.591.717	152.698.601	1.117.581.857
Asturias	9	2	310.157.784	39.017.055	18.225.932	367.400.771
Balear Uharteak	0	0	14.709.506	0	0	14.709.506
Kanariak	0	0	5.364.641	0	0	5.364.641
Kantabria	37	8	657.336.671	291.575.166	138.783.730	1.087.695.567
Gaztela-Mantxa	20	5	939.380.456	128.241.772	56.859.691	1.124.481.919
Gaztela eta Leon	45	11	1.141.164.825	295.574.974	217.496.306	1.654.236.104
Katalunia	154	26	2.316.594.551	614.724.570	461.516.590	3.392.835.711
Valentziako Erk.	143	25	2.074.036.481	585.164.378	450.869.465	3.110.070.324
Extremadura	0	0	51.655.567	0	0	51.655.567
Galizia	28	7	679.378.177	151.158.173	89.366.429	919.902.779
Errioxa	32	7	430.127.878	225.033.429	157.869.809	813.031.116
Madril	452	69	14.860.387.623	2.474.833.350	1.396.365.459	18.731.586.432
Nafarroa	34	7	611.314.078	159.537.865	127.373.776	898.225.719
EAE	2.867	269	18.024.336.647	34.673.527.197	20.616.645.852	73.314.509.696
Murtzia	15	2	244.081.688	51.834.611	38.877.281	334.793.580
Ceuta	0	0	1.267.491	0	0	1.267.491
Melilla	0	0	671.825	0	0	671.825
Identifikatu gabeko gainerakoa	0	0	1.017.201	517.204.797	0	518.221.998
GUZTIRA	5.680	709	52.779.208.002	50.073.138.823	26.062.766.537	128.915.113.363

Iturria: Kutxabank. 2022.

Kreditu-jarduera hori egiteko, Taldeak 493 milioi euro inguruko balioa zuten erosketak eta inbertsioa egin zituen, ia 453 milioi euro ordaindu zituen soldata eta lansari gordinen kontzeptuan eta beste 483 milioi euro zerga- eta tasa-kontzeptuan.

5. Taula. Kutxako irteerak

Datuak eurotan

Autonomia Erkidegoa	Ondasun eta zerbitzuen erosketak	Soldatak eta lansariak	Zergak, tasak, GS, etab.	GUZTIRAKOA FLUXUAK
Kordoba	26.007.291	70.950.190	63.123.606	160.081.088
Jaen	3.446.531	10.829.444	6.852.048	21.128.023
Gainontzekoa	29.768.944	40.611.940	23.918.846	94.299.730
Andaluzia	59.222.766	122.391.574	93.894.500	275.508.840
Aragoi	5.211.646	3.163.819	2.718.036	11.093.500
Asturias	491.163	672.638	619.975	1.783.775
Balear Uharteak	338.059	249	43.488	381.796
Kanariak	7.404	393,76	10.558	18.355
Kantabria	1.902.171	3.371.205	2.561.948	7.835.324
Gaztela-Mantxa	1.224.232	2.844.834	1.447.416	5.516.482
Gaztela eta Leon	2.282.261	3.880.514	3.223.509	9.386.284
Katalunia	9.664.804	11.649.604	11.832.176	33.146.584
Valentziako Erk.	2.866.296	11.383.105	9.697.199	23.946.601
Extremadura	311.570	242,16	20.461	332.273
Galizia	1.103.110	2.026.314	2.039.722	5.169.146
Errioxa	1.109.064	2.382.810	1.493.093	4.984.967
Madril	175.234.175	37.182.816	119.177.552	331.594.542
Nafarroa	1.866.543	2.811.092	2.529.791	7.207.427
EAE	226.289.258	247.913.062	213.240.062	687.442.382
Murtzia	457.870	1.298.854	845.885	2.602.609
Ceuta	43	0	0	42,50202796
Melilla	1.182	0	0	1181,717998
Identifikatu gabeko gainerakoa	3.339.079	0	17.931.967	21.271.046
GUZTIRA	492.922.695	452.973.128	483.327.337	1.429.223.160

Iturria: Kutxabank. 2022.


Datuak erlatiboki alderatuz Espainiako Bankuak kreditu- eta gordailu-entitateei buruz jasotako guztirako datuekin, ikus dezakegu Kutxabank Taldeak estatuko banku-sarea osatzen duten 25.536 bulego inguruko kopurutik %3,5 inguru duela eta guztira banketxeetan lan egiten duten 168.350 inguru langileen artean %3,3.

Bitartekaritza-jarduerari dagokionez, Taldeak gordailu guztien gainean gutxi gorabehera %3,5eko eta guztirako kredituaren gainean %4,2ko batez besteko kuota izango luke; edozein kasutan, batez besteko emaitza horiek nahiko baldintzatuta daude Taldearen jardueraren kokapen geografikoaren eraginez; izan ere, ondoren doan grafikoan ikus daitekeenez, EAEn kasuan kuota horiek nabarmen igotzen dira, lurralde honen guztirako gordailuen %36 eta guztirako kredituaren %26 inguru.

Era berean, kuota horiek bereziki aipagarriak dira presentziarik handieneko Andaluziako probintzietan, Kordoban gordailu guztien %38 gainditzen eta Jaenen %9; eta bestalde, Andaluzia mailako guztirako kredituaren kuotak %6,2 eta %6,1 dira hurrenez hurren.

3. Grafikoa. Kutxabanken kreditu eta gordailuen kuotak

(kreditu eta gordailu entitateen guztirakoaren gaineko %)




Iturria: Geuk egina. Espainiako Bankuaren eta Kutxabanken datuak.

Logikoki, lurralde mailako kuoten ezberdintasun horiek Taldearen beraren bulegoek duten pisuak eraginda daude eta, ondoren azaltzen dugun grafikoan ikus daitekeen moduan, EAEko bulegoen guztirakoaren %27,3 dira, Andaluziako %8,4, Kantabrian %3,8, Madril eta Errioxan %3,4 eta Nafarroan eta Valentziako Erkidegoan %2. Katalunian, Galizian eta Gaztela eta Leonen %1etik beherakoa da.

4. Grafikoa. Kutxabanken bulegoen lurralde-posizionamendua


Kutxabank bulegoak / Kreditu erakundearen guztirakoa%



Iturria: Geuk egina. Espainiako Bankuaren eta Kutxabanken datuak.

Era berean, Taldearen finantza-bitartekaritzaren jardueraren intentsitate erlatiboa, kreditu- eta gordailu-terminoetan neurtuta guztirako BPGrekiko, EAEn, bere inguruko lurraldeetan eta Andaluzian kontzentratzen da, ondoren azaltzen dugun irudian ikus daitekeen moduan.

2. irudia. Finantza-bitartekaritzaren jardueraren ezarpen erlatiboa



Iturria: Geuk egina. INEren eta Kutxabanken datuak

4.1. Eragin zuzenak

Ikerlan mota honen ohiko terminologiari jarraiki, eragin zuzentzat joko ditugu aztertutako entitateak, Kutxabank Taldeak, sistema ekonomikoaren osotasunari egindako ekarpenak ekoizpenaren, balio erantsiaren edo errentaren, enpleguaren eta zergen ikuspegitik.

Hori horrela, entitateak emandako datuetatik abiatuta eta aurreko atalean azaldutako kalkulu-metodologia aplikatuz, jarraian dagoen taulako datuak lortzen dira.

6. Taula. Eragin zuzenak

Datuak milioi eurotan, Enplegua lanaldi osoko lanpostu-baliokideetan

	Ekoizpena	Bitarteko kontsumoak	Balio Erantsia	Soldatak eta lansariak	Soldatetik kanpoko errenta	Enplegua	Zergak eta beste karga batzuk
Andaluzia	268,5	48,2	220,3	122,4	97,9	1.808,0	93,9
Kordoba	136,8	21,2	115,6	71,0	44,7	1.004,0	63,1
Jaen	19,7	2,8	16,9	10,8	6,1	201,0	6,9
Gainontzekoa	112,0	24,2	87,8	40,6	47,2	603,0	23,9
Aragoi	13,4	4,2	9,1	3,2	6,0	36,0	2,7
Asturias	4,8	0,4	4,4	0,7	3,8	9,0	0,6
Balearr Uharteak	0,2	0,3	-0,1	0,0	-0,1	0,0	0,0
Kanariak	0,1	0,0	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0
Kantabria	13,2	1,5	11,6	3,4	8,2	37,0	2,6
Gaztela eta Leon	19,9	1,9	18,1	3,9	14,2	45,0	3,2
Gaztela-Mantxa	14,8	1,0	13,8	2,8	10,9	20,0	1,4
Katalunia	40,6	7,9	32,8	11,6	21,1	154,0	11,8
Valentziako Erk.	36,9	2,3	34,5	11,4	23,1	143,0	9,7
Extremadura	0,7	0,3	0,5	0,0	0,5	0,0	0,0
Galizia	11,5	0,9	10,6	2,0	8,6	28,0	2,0
Madril	240,1	142,6	97,5	37,2	60,3	452,0	119,2
Murtzia	4,1	0,4	3,7	1,3	2,4	15,0	1
Nafarroa	10,7	1,5	9,2	2,8	6,4	34,0	2,5
EAE	833,6	184,1	649,5	247,9	401,6	2.867,0	213,2
Errioxa	9,1	0,9	8,2	2,4	5,8	32,0	1,5
Ceuta, Melilla	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	17,9
GUZTIRA	1.522	493	1.124	453	671	5.680	483,3

Iturria: Geuk egina.

1.522 milioi euroko guztirako ekoizpenarekin eta tarteko kontsumoak erostera bideratutako 493 milioi euro baino gehiago kenduta, Kutxabank Taldeak 1.124 milioi euroko balio erantsia sortuko zuen.


Sortutako guztirako errenta hori honela banatzen da: %40 (453 milioi euro) soldaten errentak eta gainerako %60a (671 milioi euro) soldatatzkoak ez diren errentak.

Adierazitako jarduera egiteko, Taldeak 5.680 langile kontratatuta ditu zuzenean eta 483 milioi euroko ekarpena egin die diru-kutxa publikoei tasa, kontribuzio eta zerga gisa.

Termino erlatiboetan, zuzeneko errenta hori Espainiako BPGaren guztirakoaren %0,09 litzateke termino erantsietan, nahiz eta, EAEn, eragin erlatibo hori hamar aldiz biderkatuko litzatekeen, hau da, erkidegoaren BPGaren %0,9ra gaindituz; Kordobako probintziak termino erlatiboetan lortuko litzatekeen balioa baino zertxobait handiagoa.

Enpleguari dagokionez, guztizko agregatuen aldean, zifra erlatiboak zertxobait moderatuagoak dira, eta enplegu nazionalaren %0,031ra mugatzen dira, %0,3ra EAEn eta Kordobako probintzian.

5. Grafikoa. Eragin zuzen erlatiboak



Iturria: Geuk egina.

4.2. Zeharkako eraginak

Zeharkako eraginak dira aztertutako entitatean sortutako ondasun eta zerbitzuen transakzioetatik abiatuta sistema ekonomikoaren gainerakoan eratzten diren eraginak.

Kasu honetan, aurreko atalean adierazi legez, zeharkako eraginen iturburu adierazgarri bi antzeman dira, hain zuzen ere: Kutxabank Taldearen ohiko jardueraren eta Taldearen kreditu-jardueraren ondorioz sortutako kutxa-irteerak.

Era berean, lehen multzoaren baitan, **jardueragatiko zeharkako eragina** deituko diogu multzoari, sailkapena egin da: Taldeak egindako erosketetan eta inbertsioetan jatorri dutenak, batetik, eta errenta banatuen erabileragatik sortutakoak, bestetik.


Bestalde, **bitartekaritzagatiko zeharkako eragina** deritzogun bigarren taldean, hipoteka-kredituetatik, kontsumorako kredituetatik eta ekoizpen-jardueretarako kredituetatik eratorritako eraginak bereizi dira, baita inbertsio-fondoan eta pentsio-planen prestazioetatik eratorriak ere.

Halaber, zeharkako eraginen talde bakoitzaren baitan, bi maila ezarri ditugu. Lehen mailan, Taldearekin zuzenean elkarreraginean aritzen diren eragileek sortutako eraginak daude, hau da, ondasunen eta zerbitzuen hornitzaileak, errenten hartzaileei ondasunak eta zerbitzuak saltzen dizkieten enpresak, hipoteka-kredituarekin eta kontsumorako kredituarekin erositako ondasunen ekoizleak eta ekoizpen-jardueretarako kredituen hartzaileak.

Bigarren mailan, lehen mailako ekoizle horiek beren ekoizpen-prozesuan txertatzeko erositako produktuen bidez sistema ekonomikoaren gainerakoan sortutako zeharkako eraginak daude.

Jarraian dagoen irudian, zeharkako eraginen jatorria eta lehen mailako zeharkako eraginak daude.

3. irudia. Lehen mailako zeharkako eraginen jatorria eta lehen mailako eraginak



Iturria: Geuk egina.

Aurreko irudian ikus daitekeenez, erosketek eta inbertsioek eragindako kutxako irteerek (493 milioi euro), gehi soldaten errentek (453 milioi euro), 724 milioi euro inguruko fakturazioa (ekoizpena) eragingo lukete Espainiako beste enpresa batzuetan. Horrek, bestalde, 403 milioi euroko errentak (BPG) sortuko lituzke, 7.552 langileentzako lana ahalbidetuko luke eta 182 milioi euro gehituko litzioke diru-kutxa publikoei.

Erosketei eta inbertsioei dagokienez, Kutxabank Taldeak ordaindutako 493 milioi euroek zenbateko bereko fakturazioa (ekoizpena) sortu dute hornitzaileengan, eta, banatutako errenten kasuan, ordea, kutxatik irteten diren 453 milioi euroek, zergak eta aurrezte-tasa kenduta, 286 milioi euro inguruko guztirako kontsumo-gastua eragingo lukete, eta horietatik 216 milioi euro Espainiako enpresek fakturatuko lukete (gainerakoa zergak eta inportatutako kontsumoko ondasunak lirateke).

Ekoizpen-maila kalkulatu horiek jarraian aurkezten dugun neurriko eragina izango lukete gainerakoengan.

7. Taula.- Jardueraren zeharkako eraginak (1. maila)

Datuak milioi eurotan, Enplegua lanaldi osoko lanpostu-baliokideetan

	Ekoizpena	Bitarteko kontsumoak	Balio Erantzia	Soldatak eta lansariak	Soldatetik kanpoko errenta	Enplegua	Zergak
Andaluzia	123,1	52,3	70,8	37,8	32,9	1645,3	33,4
Aragoi	7,4	3,2	4,2	2,2	2,0	90,8	1,8
Asturias	1,1	0,4	0,7	0,4	0,3	14,5	0,3
Balear Uharteak	1,0	0,3	0,7	0,4	0,3	17,8	0,3
Kanariak	0,6	0,2	0,4	0,2	0,2	9,1	0,2
Kantabria	4,5	2,1	2,4	1,2	1,2	50,2	1,0
Gaztela eta Leon	6,0	2,9	3,1	1,5	1,6	63,6	1,3
Gaztela-Mantxa	4,0	1,9	2,1	0,8	1,3	41,0	0,8
Katalunia	19,5	8,5	11,0	6,2	4,8	206,4	4,8
Valentziako Erk.	9,2	3,8	5,3	2,5	2,8	108,4	2,2
Extremadura	1,1	0,5	0,5	0,2	0,4	8,4	0,2
Galizia	3,9	1,8	2,1	0,8	1,3	38,1	0,8
Madril	196,9	98,3	98,6	69,1	29,4	1711,5	47,0
Murtzia	2,1	1,1	1,0	0,5	0,6	20,6	0,4
Nafarroa	5,1	2,6	2,5	1,4	1,2	46,6	1,1
EAE	335,5	140,2	195,3	109,6	85,7	3450,7	85,8
Errioxa	3,4	1,8	1,6	0,6	1,0	29,0	0,6
Ceuta Melilla	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0
GUZTIRA	724	322	403	236	167	7552	182

Iturria: Geuk egina.

Bestalde, kreditu biziaren 52.779 milioi euroek, diru-itzulketa gordin eta prestazioen 1.308 milioi euroekin batera, 37.233 milioi euroko ekoizpena ahalbidetuko lukete, kontuan hartuta, aurreko atalean azaldu legez, zer-nolako elastikotasunak dituen ekoizpenak kredituarekin alderatuta. Ekoizpen hori jarraian dagoen taulan bildu bezala banatuko litzateke lurraldeen eta motaren arabera.

8. taulan ikus daitekeen bezala, ekoizpenaren gainek eko eragina zertxobait aldatzen da kreditu tipologiaren arabera.

Gauzak horrela, esaterako, hipoteka-kredituen kasuan, inbertsioaren elastikotasuna 0,46 izango litzateke, hau da, kreditu-stockeko milioi euro bakoitzeko 460.000 euroko inbertsioa egingo litzateke, eta, horri BEZaren %9,4 kenduta (%10 prezio libreko etxebizitzetan eta %4 babes ofizialekoetan), etxebizitza-higiezinaren ekoizleek 416.000 euro fakturatu dituztela esan nahiko luke.

Kontsumorako kredituetan, gastuaren elastikotasuna, kreditu-stockaren aldean, 0,42 ingurukoa zen, eta horrek esan nahiko luke kredituko milioi bat euro bakoitzak 420.000 euro inguruko igoera eragingo lukeela azken kontsumoko gastuan; izan ere, zeharkako zergak eta atzerriko ekoizleei eskatutako ondasun eta zerbitzuak (inportazioak) deskontatzean, 382.000 euro inguruko barne-fakturazioa (ekoizpena) sortuko lukete kreditu-stockaren milioi bakoitzeko.

Ekoizpenaren erkidegoz erkidegoko banaketari dagokionez, azpimarratzekoa da erkidego bakoitzeko kontsumitzaileei ematen zaien kredituak, erkidego horretan ez ezik, gainerakoetan ere handitzen duela ekoizpena.

Azkenik, ekoizpen-jardueretarako kredituen kasuan, sektoreen balio erantsiaren batez besteko elastikotasuna kreditu-stockarekiko 0,23 eta 0,79 artekoa da (txikiena finantza bitartekaritzan eta hezkuntzan eta osasunean, 0,52 inguruko batez besteko balioetara iritsita), hau da, kreditu-stockeko milioi bakoitzeko 520.000 euroko balio erantsia sortuko litzateke.

Kontuan izanda balio erantsiko euro bakoitzeko ekoizpeneko 2,0 euro inguru sortzen direla batez bestez, kreditu-stockaren batez besteko biderkatzailea 1,3 ingurukoa litzateke; 8. taulan adierazitako datuen arabera, hor zehazten da Kutxabanken kreditu-stockaren sektorekako banaketaren egitura eta sortutako ekoizpen mailak.

8. Taula. Kreditu-jarduerak sortutako ekoizpena

Datuak Milioi eurotan

	Hipotekaduna		Kontsumoa		Produktiboa	
	Kreditu Stocka	Ekoizpena	Kreditu Stocka	Ekoizpena	Kreditu Stocka	Ekoizpena
Andaluzia	6.762	2.498	985	346	1.283	2.339
Aragoi	543	200	27	11	29	203
Asturias	118	44	6	3	3	166
Balear Uharteak	13	5	0	3	1	1
Kanariak	5	2	0	3	0	0
Kantabria	606	224	34	15	17	20
Gaztela eta Leon	634	234	32	19	25	504
Gaztela-Mantxa	452	167	26	15	11	479
Katalunia	2.047	756	90	51	122	202
Valentziako Erk.	1.431	528	96	35	78	566
Extremadura	5	2	1	4	2	47
Galizia	369	136	20	15	17	294
Madril	5.171	1.910	252	105	4.142	12.263
Murtzia	141	52	8	8	4	104
Nafarroa	362	134	15	13	102	269
EAE	10.853	4.009	1.618	485	3.524	6.585
Errioxa	315	116	19	11	74	208
Ceuta Melilla	2	1	0	0	0	0
GUZTIRA	29.829	11.020	3.230	1.144	9.434	24.248

Iturria: Geuk egina.

Finantza-bitartekaritzako jarduerak sortutako ekoizpenaren zifra estimatu horietatik abiatuta eta itzulketetatik eta prestazioetatik eratorritako ekoizpena metatuta (812 milioi ekoizpen), ondoko taulan zehaztutako eraginak lor litezke.

Ekoizpena 37.233 milioi euro sortzeko, beharrezkoa litzateke 17.066 milioi euro inguru balio duten bitarteko kontsumoak erostea. Horrela, 20.157 milioi euroko balio erantsia (errenta) sortuko litzateke honela banatuta: %61 soldaten errentak (12.406 milioi euro) eta gainerakoa soldatikoak ez diren errentak (7.751 milioi euro).

Ekoizpen hori sortzeko 356.153 langile beharko lirateke, eta jarduera horretatik 9.245 milioi euro eratorriko lirateke zergetan.

9. Taula. Bitartekaritzaren zeharkako eraginak (1. maila)

Datuak milioi eurotan, Enplegua lanaldi osoko lanpostu-baliokideetan

	Ekoizpena	Bitarteko kontsumoak	Balio Erantsia	Soldatak eta lansariak	Soldatetik kanpoko errenta	Enplegua	Zergak
Andaluzia	5.272	2.616	2.657	1.493	1.163	52.532	1.249
Aragoi	423	149	274	168	105	5.030	127
Asturias	214	36	178	142	35	3.477	94
Balear Uharteak	11	5	7	3	3	142	3
Kanariak	7	3	4	2	2	85	2
Kantabria	270	153	116	55	62	2.247	47
Gaztela eta Leon	772	257	515	359	156	9.964	251
Gaztela-Mantxa	667	199	468	353	115	9.235	241
Katalunia	1.037	484	553	289	264	10.085	233
Valentziako Erk.	1.148	500	648	433	215	12.415	317
Extremadura	54	14	40	32	8	763	22
Galizia	455	137	318	211	107	6.017	150
Madril	14.338	6.591	7.747	5.408	2.339	144.361	3.695
Murtzia	169	58	110	85	26	2.262	58
Nafarroa	430	179	250	155	95	4.471	114
EAE	11.610	5.476	6.134	3.144	2.990	90.368	2.582
Errioxa	345	207	138	75	63	2.684	59
Ceuta Melilla	1	0	0	0	0	7	0
GUZTIRA	37.223	17.066	20.157	12.406	7.751	356.143	9.245

Iturria: Geuk egina.

Aurreko paragrafoetan azaldu legez, zeharkako eraginak sistema ekonomiko osotik zabalduko lirateke lehen mailako ekoizpena egiteko erosi beharrekotatik abiatuta (bitarteko kontsumoak). Hala, jarduerak eragindakoak 322 milioi eurokoak izango lirateke eta bitartekaritzak eragindakoak 17.066 milioi eurokoak.

Ondoko tauletan, bigarren maila horretan sortutako eraginak azaltzen dira, jatorriaren arabera sailkatuta (jarduerak eragindakoak eta bitartekaritzak eragindakoak).

10. Taula. Jardueraren zeharkako eraginak (2. maila)

Datuak milioi eurotan, Enplegua lanaldi osoko lanpostu-baliokideetan

	Ekoizpena	Balio Erantsia	Soldatak eta lansariak	Soldatetik kanpoko errenta	Enplegua	Zergak
Andaluzia	50,7	24,2	12,2	11,9	485	11,4
Aragoi	8,9	3,9	1,7	2,2	61	1,5
Asturias	2,3	1,2	0,6	0,7	20	0,5
Balearr Uharteak	3,2	2,0	1,0	1,0	40	0,8
Kanariak	2,1	1,3	0,5	0,8	21	0,6
Kantabria	5,1	2,3	0,9	1,3	38	0,9
Gaztela eta Leon	10,7	5,0	2,0	3,0	83	1,9
Gaztela-Mantxa	8,1	4,0	1,5	2,5	63	1,5
Katalunia	35,7	17,8	8,7	9,1	261	7,3
Valentziako Erk.	14,3	7,4	3,3	4,1	128	2,9
Extremadura	2,3	1,2	0,3	0,9	16	0,4
Galizia	8,7	4,3	1,6	2,6	66	1,6
Madril	122,9	61,4	37,6	23,8	953	27,4
Murtzia	4,1	1,7	0,8	1,0	31	0,7
Nafarroa	8,7	3,6	1,7	1,9	54	1,5
EAE	138,4	72,8	36,8	36,0	1.115	30,5
Errioxa	5,0	1,9	0,7	1,1	28	0,7
Ceuta Melilla	0,1	0,0	0,0	0,0	1	0,0
GUZTIRA	431,1	216,1	112,1	103,9	3.465	92,2

Iturria: Geuk egina.

11. Taula.- Bitartekaritzaren arabeko zeharkako eraginak (2. maila)

Datuak milioi eurotan, Enplegua lanaldi osoko lanpostu-baliokideetan

	Ekoizpena	Balio Erantsia	Soldatak eta lansariak	Soldatetik kanpoko errenta	Enplegua	Zergak
Andaluzia	3.272	1.416	733	682	28.011	659
Aragoi	615	266	117	149	3.951	104
Asturias	197	102	51	51	1.636	43
Balearr Uharteak	214	120	59	62	2.376	50
Kanariak	153	89	38	51	1.493	38
Kantabria	403	174	76	99	2.880	68
Gaztela eta Leon	818	400	173	227	6.647	156
Gaztela-Mantxa	638	306	132	174	5.099	121
Katalunia	2.364	1.139	563	576	17.067	469
Valentziako Erk.	1.248	601	278	323	10.615	242
Extremadura	121	64	19	46	798	22
Galizia	706	343	143	200	5.472	134
Madril	7.159	3.560	2.097	1.463	53.525	1.555
Murtzia	281	119	54	65	2.114	48
Nafarroa	624	257	130	127	3.890	108
EAE	6.088	2.907	1.397	1.510	41.585	1.193
Errioxa	369	143	63	80	2.351	57
Ceuta Melilla	6	3	2	2	51	1
GUZTIRA	25.277	12.011	6.124	5.887	189.558	5.067

Iturria: Geuk egina.

Mailatako zeharkako eraginak gehituta, jarraian azaltzen diren guztirako balioak lortuko lirateke, jarduerak eragindako eta bitartekaritzak eragindako eraginak berezita.

12. Taula.- Jardueraren zeharkako eraginak (Guztira)

Datuak milioi eurotan, Enplegua lanaldi osoko lanpostu-baliokideetan


	Ekoizpena	Balio Erantsia	Soldatak eta lansariak	Soldatetik kanpoko errenta	Enplegua	Zergak
Andaluzia	173,8	94,9	50,1	44,9	2.131	44,8
Kordoba	88,6	48,2	24,8	23,4	1.056	22,6
Jaen	12,9	7,0	3,6	3,4	151	3,3
Gainontzekoa	72,4	39,7	21,7	18,0	923	19,0
Aragoi	16,3	8,2	3,9	4,3	152	3,3
Asturias	3,4	1,9	0,9	1,0	35	0,8
Balearrak	4,2	2,7	1,4	1,3	58	1,2
Kanariak	2,7	1,8	0,7	1,1	31	0,7
Kantabria	9,5	4,7	2,1	2,6	88	1,9
Gaztela eta Leon	16,7	8,1	3,5	4,6	146	3,2
Gaztela-Mantxa	12,1	6,1	2,4	3,8	104	2,3
Katalunia	55,2	28,8	14,9	13,9	467	12,1
Valentziako Erk.	23,4	12,7	5,8	6,9	236	5,1
Extremadura	3,3	1,7	0,5	1,2	24	0,6
Galizia	12,6	6,4	2,5	3,9	104	2,4
Madril	319,8	160,0	106,8	53,2	2.664	74,4
Murtzia	6,2	2,8	1,2	1,5	52	1,1
Nafarroa	13,8	6,1	3,1	3,1	100	2,6
EAE	473,9	268,1	146,4	121,7	4.566	116,3
Errioxa	8,4	3,5	1,4	2,1	57	1,3
Ceuta Melilla	0,1	0,0	0,0	0,0	1	0,0
GUZTIRA	1155	619	348	271	11018	274

Fuente: Elaboración propia.


Jardueren zeharkako eraginak 619 milioi euroko guztirako errenta sortuko luke (BPGaren guztirakoaren %0,05), eta horietatik 348 milioi euro 11.018 enpleguen soldatari legokieke (Espainiako guztirako enpleguaren %0,06) eta administrazio publikoek ia 274 milioi euro bilduko lituzkete.

6. Grafikoa. Jardueraren zeharkako eragin erlatiboak

BPG%



Enplegua%



Iturria: Geuk egina.

13. Taula. Bitartekaritzaren zeharkako eraginak (Guztira)

Datuak milioi eurotan, Enplegua lanaldi osoko lanpostu-baliokideetan


	Ekoizpena	Balio Erantsia	Soldatak eta lansariak	Soldatetik kanpoko errenta	Enplegua	Zergak
Andaluzia	8.544	4.072	2.226	1.846	80.543	1.908
Kordoba	3256,3	1582,5	861,7	720,8	31.135	747,6
Jaen	695,7	334,7	182,5	152,2	6.602	157,3
Gainontzekoa	4588,1	2152,8	1182,2	970,6	42.768	1002,0
Aragoi	1.037	539	285	255	8.980	232
Asturias	412	280	193	87	5.112	137
Balearr Uharteak	226	127	62	65	2.518	53
Kanariak	160	93	40	54	1.578	39
Kantabria	673	291	130	161	5.126	114
Gaztela eta Leon	1.590	915	531	384	16.611	407
Gaztela-Mantxa	1.305	774	485	289	14.334	363
Katalunia	3.402	1.692	852	841	27.151	703
Valentziako Erk.	2.396	1.249	712	538	23.030	559
Extremadura	176	105	51	54	1.561	44
Galizia	1.161	661	354	307	11.489	284
Madril	21.497	11.307	7.505	3.801	197.885	5.250
Murtzia	450	229	139	90	4.376	106
Nafarroa	1.054	507	285	222	8.361	222
EAE	17.698	9.041	4.541	4.500	131.953	3.775
Errioxa	715	281	138	143	5.034	116
Ceuta Melilla	6	4	2	2	58	1
GUZTIRA	62.500	32.168	18.531	13.637	545.701	14.312

Iturria: Geuk egina.

Bitartekaritza bidezko zeharkako ondorioak, logikoa denez, askoz handiagoak dira, eta 32.168 milioi euroko errenta gainditzen dute, hau da, estatuko guztizkoaren %2,7, eta 545.701 enpleguak ere bai, guztizkoaren %3,0.

Eragin erlatibo horiek nabarmen handitzen dira Kutxabank Taldeak presentzia handiena duen eskualde edo probintzietan: BPGaren %12,6ra eta enpleguaren %13,9ra iristen dira EAEn, edo %11,4ra eta %12,7ra Kordobako probintzian, hurrenez hurren.

7. Grafikoa. Bitartekaritzaren zeharkako eragin erlatiboak



Iturria: Geuk egina.

4.3 Eragin induzituak

Metodologiari buruzko atalean definitu bezala, eragin induzituak dira zeharkako langile guztiek egindako kontsumotik eratorritakoak. Ondoko taulan daude laburbilduta.

14. Taula. Sortutako ekoizpen induzitua

Datuak Milioi eurotan

		Jarduera	Bitartekaritza
1	Soldatapeko Errentak	348	18.531
2	-Gizarte Segurantzako kotizazioak	109	5.815
3	-Errentaren gaineko Zerga	48	2.537
4	Errenta erabilgarria (1-2-3)	191	10.179
5	-Aurrezkoa	21	1.123
6	Kontsumoa (4-5)	170	9.056
7	-Inportazioa eta zergak	34	1.914
8	Estatuko hornitzaileei egindako eskaerak (6-7)	135	7.141
9	Ekoizpen osoa	217	11.400
10	Ekoizpen Induzitua (9-8)	82	4.259

Iturria: Geuk egina.

Gure kasuan, jardueren zeharkako eraginek sortutako soldaten 348 milioi euroak gehi kreditu-jardueren eragindako zeharkako langileen ordainsarien 18.531 milioi euroak izango litzateke kontsumo hori.

Soldaten errentaren guztirakotik abiatuta eta gizarte-kotizazioak (109 eta 5.815 milioi euro, hurrenez hurren) eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga kenduta (48 eta 2.537 milioi euro), zeharkako langile horiek guztiek eskuragarri edukiko luketen errentaren guztirakoa lortuko litzateke: 191 eta 10.179 milioi euro, hurrenez hurren.

Kontsumoaren guztirako zifra lortzeko, aurrezteari emandako zatia (21 eta 1.123 milioi euro) kendu beharko litzateke eskuragarri dagoen errentaren zenbateko horiei. Eraitza zeharkako langile horiek egingo luketen kontsumoaren guztirako bolumena izango litzateke: 170 milioi euro inguru jarduerengatiko zeharkako eraginetan eta beste 9.056 milioi euro bitartekaritzagatiko zeharkako eraginetan.

Kontsumo-kopuru horiek Espainiako eta nazioarteko ekoizleen artean banatuta eta dagozkion zeharkako zergak kenduta, sistema ekonomikoaren osotasunean sortuko litzatekeen bolumena lortuko genuke (135 eta 7.141 milioi euro, hurrenez hurren).

Hasierako kontsumo-kopuru horiei ekoizpenaren biderkatzaileen eredia aplikatuz gero, kontsumoaren hasierako eskaera estaltzeko beharrezko guztirako ekoizpena lortuko genuke, 217 eta 11.400 milioi euro, hurrenez hurren.

Kontuan hartuta zeharkako langileek egindako kontsumoagatik sortutako errenta balegokeela zeharkako eraginetan sartuta, eragin induzituak bi izango lirateke hertsiki: kontsumo horren eragin biderkatzailea, hau da, ekoizpenaren guztirakoaren eta hasierako kontsumoaren arteko diferentzia, eta hasierako kontsumoa, hau da, 82 milioi euro jarduerarengatik eta 4.259 milioi euro bitartekaritzagatik.

Ekoizpen induzituko kopuru horietatik abiatuta, gainerako aldagaiekiko eraginak jarraian zehaztutakoak lirateke.

15. taula. Jardueraren eragin induzituak


Datuak milioi eurotan, Enplegua lanaldi osoko lanpostu-baliokideetan

	Ekoizpena	Balio Erantsia	Enplegua	Zergak
Andaluzia	10,4	4,8	91	2,2
Kordoba	4,9	2,3	43,3	1,0
Jaen	0,7	0,3	6,3	0,2
Gainontzekoa	4,7	2,2	41,6	1,0
Aragoi	2,3	0,9	15	0,4
Asturias	0,6	0,3	5	0,1
Balearr Uharteak	0,7	0,5	9	0,2
Kanariak	0,5	0,3	5	0,1
Kantabria	1,2	0,5	9	0,2
Gaztela eta Leon	3,4	1,5	26	0,6
Gaztela-Mantxa	2,4	1,1	18	0,4
Katalunia	9,4	4,5	64	1,8
Valentziako Erk.	3,5	1,7	30	0,7
Extremadura	0,7	0,4	6	0,1
Galizia	2,4	1,1	18	0,4
Madril	20,2	10,0	147	4,4
Murtzia	1,1	0,5	8	0,2
Nafarroa	2,3	1,0	14	0,4
EAE	19,0	9,5	133	3,9
Errioxa	1,7	0,6	9	0,2
Ceuta Melilla	0,0	0,0	0	0,0
GUZTIRA	82	39	606	16

Iturria: Geuk egina.

Jarduerak eragindako inpaktuak, logikoa denez, nahiko txikiak dira, 39 milioi euroko errentara eta 606 enplegua mugatzen dira, eta eragin erlatibo adierazgarriak dituzte EAEn eta Kordoban, %0,01 baino gehixeagoak.

8. Grafikoa. Jardueraren eragin induzitu erlatiboak



16. Taula. Bitartekaritzaren eraginak

Datuak milioi eurotan, Enplegua lanaldi osoko lanpostu-baliokideetan

	Ekoizpena	Balio Erantsia	Enplegua	Zergak
Andaluzia	517	233	4.446	107
Kordoba	214,4	96,3	1834,5	44,1
Jaen	43,6	19,6	374,2	9,0
Gainontzekoa	258,9	117,3	2235,3	54,0
Aragoi	129	52	808	20
Asturias	44	24	400	10
Balear Uharteak	41	25	477	10
Kanariak	27	17	265	7
Kantabria	59	26	405	10
Gaztela eta Leon	215	99	1.677	37
Gaztela-Mantxa	172	83	1.295	31
Katalunia	529	255	3.610	103
Valentziako Erk.	235	115	1.934	45
Extremadura	41	21	335	8
Galizia	143	70	1.114	26
Madril	1.197	599	8.735	263
Murtzia	66	28	512	11
Nafarroa	116	51	744	20
EAE	641	319	4.443	129
Errioxa	85	29	436	11
Ceuta Melilla	1	0	6	0
GUZTIRA	4.259	2.048	31.641	850


Iturria: Geuk egina.

Bestalde, kreditu-jarduerak induzitutako eraginak adierazgarriak dira, 2.048 milioi euroko errenta eta 31.641 enplegu baino gehiago, hain zuzen, eta herri-administrazioek 850 milioi euro inguru batuko lituzkete horiei esker.


Termino erlatiboetan, errentetan izandako inpaktua BPGaren eta enpleguaren %0,17ra hurbilduko litzateke sistema ekonomiko osoan, eta EAEn eta Kordoban, berriz ere, BPGaren eta enpleguaren %0,4 eta %0,7 bitartean egongo lirateke, hurrenez hurren.

9. Grafikoa. Bitartekaritzaren eragin induzitu erlatiboak

BPG%



Enplegua%




Iturria: Geuk egina.

4.4. Guztirako eraginak

Aztertutako maila bakoitzean (zuzena, zeharkakoa eta induzitua) bildutako eraginak gehituz, Kutxabank Taldearen jarduerak sistema ekonomikoaren osotasunean duen guztirako eragina lortuko litzateke, zeina ondoko irudian laburbilduta dagoen.

4. irudia. Kutxabank Taldearen guztirako eraginaren laburpena



Iturria: Geuk egina.


Emitza orokorrak ikusita, esan genezake Kutxabankek 35.998 milioi euroko errenta sortu zuela 2022an, eta, zenbateko horretatik, 15.930 milioi euro baino gehiago diru-kutxa publikoetan sartu zirela, tasa, zerga eta kotizazio sozial gisa. Horrez gainera, esan daiteke lanaldi osoari dagozkion 594.646 lanpostu ahalbidetu zituela.

Bestalde, arreta BPGan izandako eraginaren jarriz gero, sortutako errenta osoa 35.998 milioi eurora hurbilduko litzateke, honela banatuta: %89 bitartekaritzagatik zeharkako eragina, %6 bitartekaritzak induzitutako eraginak, %3 jardueragatik zuzeneko eraginak eta beste %2 zeharkakoak.

5. irudia. Guztirako eragina BPG gainean

BPGaren gaineko eraginak


Milioi eurotan eta guztiakoaren %kotan



Iturria: Geuk egina.


10. Grafikoa. BPGren gaineko eragin erlatiboak

BPGaren % jardueraren arabera



Iturria: Geuk egina.

BPGaren % kredituaren arabera



Errenta agregatuaren osoarekiko termino erlatiboetan, Kutxabanken ekarpena Estatuaren BPG osoaren %3,0 gaindituko litzateke, eta, EAEren kasuan, eragin erlatibo hori erkidegoaren BPGaren %14,3 izango litzateke (%13,05 bitartekaritzagatik eta %1,3 jardueragatik, hain zuzen).

Era berean, Kordoban, datu hori probintziaren BPGaren %13,5 inguruan ibiliko litzateke, eta Jaenen, aldiz, errentaren %3,5 inguruan besterik ez.

Per capita datuei begira, ordea, eragin induzituak nabarmen aldatzen dira lurralde batetik bestera, Taldearen negozioaren lurralde-egitura dela-eta, logikoa denez. Gauzak horrela, EAE nabarmendu behar da, zalantzarik gabe, biztanleko 4.707 euroko errenta gainditzen baita han. Bigarren mailan, Madril, Errioxa, Nafarroa edo Andaluzia daude, pertsonako 800 eta 2.000 euro bitarteko errentekin.

17. Taula. Autonomia Erkidegoetako errentaren gaineko eraginak guztira

Datuak eurotan

	BPG per capita eurotan		
	Jarduera	Kreditua	Guztira
EAE	424	4.283	4.707
Madril	40	1.763	1.803
Errioxa	39	981	1.019
Nafarroa	25	848	873
Batez bestekoa	38	722	760
Kantabria	29	542	571
Andaluzia	38	506	544
Kordoba	213	2.149	2.362
Jaen	39	566	605
Aragoi	14	444	458
Gaztela eta Leon	12	425	436
Gaztela-Mantxa	10	418	428
Asturias	7	300	307
Valentziako Erk.	10	270	280
Galizia	7	271	278
Katalunia	9	254	263
Murtzia	5	170	175
Balear Uharteak	3	125	127
Extremadura	2	119	122
Kanariak	1	49	50
Ceuta Melilla	0	24	24


Iturria: Geuk egina.

Bestalde, enpleguarekiko eraginaren —esan dugun bezala, 594.646 enplegura hurbilduko lirateke— tipologiaren araberrako errentaren banaketaren oso antzekoa da; hala, bitartekaritzaren zeharkako eragina guztirakoaren %92 izango litzateke.

6. irudia. Guztirako eraginak enpleguan

Enpleguaren gaineko eraginak


Enplegu kopurua eta guztirakoaren gaineko %



Iturria: Geuk egina.


11. Grafikoa. Guztirako eraginak enpleguan

Jardueragatiko Enpleguaren %



Iturria: Geuk egina.

Kredituagatiko Enpleguaren %



erlatiboa Espainiako guztirakoaren %3,2 inguru da, %15tik hurbil dago EAEn, %14 baino gehiago Kordobako probintzian eta %3,6 baino zertxobait gehiago Jaenen.

Kasu honetan ere, lanpostuen erkidegoz erkidegoko banaketa nahiko heterogeneoa da. Gauzak horrela, batez beste milioi biztanleko 12.547 lanpostu sortu ditu Taldeak, hiru erkidego baino ez daude balore horien gainditzen, Errioxa, Madril, Nafarroa eta, jakina, EAE daude batez besteko horren gainetik.

18. Taula. Guztirako eraginak lurraldeetako enpleguan

Datuak lanaldi osoko lanpostu baliokideetan

Lanpostuak milioi biztanleko			
	Jarduera	Kreditua	Guztira
EAE	3.462	62.406	65.867
Madril	483	30.597	31.081
Errioxa	310	17.301	17.612
Nafarroa	226	13.842	14.068
Batez bestekoa	365	12.181	12.547
Andaluzia	474	9.997	10.471
Kordoba	2.693	42.208	44.901
Jaen	573	11.147	11.720
Kantabria	229	9.473	9.703
Gaztela eta Leon	91	7.660	7.751
Gaztela-Mantxa	69	7.626	7.695
Aragoi	153	7.352	7.505
